



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN

HAURRAK EUSKALDUNTZEN BIDEOAREN BIDEZ (2. ZATIA)

Imanol Urbieta



361:372.3

EZ-01886
04-051

GLOTODIDAKTIKA LANAK 21


65-01815
04-024

TS KANAK / KUTXAKO OTOIG

Egilea: Imanol Urbiet
© Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Eusko Jaurlaritza
Marrazkilaria: Antton Dueso
I.S.B.N. 84-7542-178-4
Legezko Gordailua: VI-215/85
Lehenengo Argitaraldia: 1985eko Ekaina
Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A. - Vitoria

Imanol Urbietta

MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN
HAURRAK EUSKALDUNTZEN
BIDEOAREN BIDEZ (2. zatia)



Gasteiz 1985

AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
SARRERA	11
A.– ENTZUMEN HEZKUNTZA	
Mendialdean	
1. Goiko Mendian.....	17
2. Egun on Mikelatxo!.....	19
3. Ibiltzen ari naiz.....	20
4. Basoko egur zotzak.....	22
5. Behin joan nintzen azokara.....	23
6. Bat eta bi.....	25
Itsasaldean	
7. Binban dragoia.....	27
8. Hondartzara joan nintzen	29
B.– ERRITMO HEZKUNTZA	
(Dantzen lehen urratsak - Jolasmotrizitatea)	
Motrizitatea	
Jolasmotrizitatea	
9. Olio banbolio	38
10. Txakurra dator atzetik	40
11. O, bugi bugil!.....	42
12. Korro korroan	44
13. John Braun.....	46
14. Nire izeba Pantxika.....	48
15. Sua sisutan.....	50
16. Zizareon zizarea.....	53
17. Zapataria	55

18. Haurrak ikas zazue	57
19. Ibiliz ibilian	58
20. Galdezka nabil	60
21. Piano piano	62
22. Uztaiak gora	64
23. Bra, bra, benedise bra	66
24. Txilin txilin bonba	68
25. Begira nago	70
26. Txoko txoko mendipetik	72
27. Soka gainetik	74
28. Zozo dantza	76
29. Lotan nago lotan	78
30. Aparretan	80
31. Gora behera bai	82
32. Firrin firrin frash. Fandango	84
33. Suhiltzaileak	86
34. Eguzki politena	88

C.- AHOTS HEZKUNTZA

Kantuz eta ipuinaz

35. Sehaskan lotan dago haurtxoa	95
36. Goazen, goazen, bai, kantatzera	97
37. Hamelingo saguak	99
38. Errauskin, Errauskin	101
39. Firi firi fi	103
40. Tatari tete! tatari tata!	105
41. Miau morron miau, katu botaduna	107
42. Pino Pino Pinotxo	109
43. Be, be! Antxumeak be, be!	111
44. Hansel, Gretel!	112
45. Zurinetxo, Edurnetxo	114
46. Barbara, barba, barbapum!	116
47. Bremengo musikalaria	118
48. Terrapatan, patan	124

D.- MUSIKATRESNEN BIDEZKO HEZKUNTZA

Fonogrina

49. Fonogrinan	132
50. Zintzilifonoak	133
51. Futafufonoak	135
52. Teterete	137
53. Potodunbak	138
54. Klaskafonoak	140

55. Arrastafonoak	142
56. Gitarra bat	144
57. Zirko bat dator.....	147
58. Haur txikiak	149
59. Zirko festak	150
60. Ameriketara joan nintzen	151
61. Trikitilariak	152
62. Frefristro	153
63. Hemezortzi serore.....	154

MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN

Bideoaren bidez landu ditugun ariketa gehienak XIXUPIKA delako liburuetan oinarriturik daude. Orain artean, gure inguruan behintzat, ez da beste metodologiarik argitaratu, eta ESKOLAURREKO MUSIKA HEZKUNTZARI dagokionez, bidezkoa iruditu zaigu XIXUPIKA delakoari eskaintzea gure saioen gidaritza, zeren eta, liburuak argitaratu ez ezik, handik eta hemendik ibiliak gerenez ikastaroak moldatuz eta ikastaroak emanaz, ESKOLAURRE inguruan nabarmendu zaizkigun eskakizunei nolabaiteko erantzun bat emateko une honetan bakar bakarrik XIXUPIKA liburu eta disketan aurkitu ahal izan ditugu beharrezkoak genituen baliabideak eta esperientziak.

Honetaz, XIXUPIKA 1 eta XIXUPIKA 2 liburu eta diska/kaseten eskutik eraman nahi izan ditugu bideo sail hauen hariak:

- 1.- MENDIALDEAN. ITSASALDEAN.
- 2.- DANTZEN LEHEN URRATSAK ETA JOLASMOTRIZITATEA.
- 3.- KANTUZ ETA IPUINAZ.
- 4.- FONOGRIÑA.

Lau kapitulu horiek direla bide, nolabaiteko erantzun bat eman nahi izan diegu HEZKUNTZA sailak MUSIKA arloan mailakatzen dituen lau atal bereziei:

- 1.- ENTZUMEN HEZKUNTZA.
- 2.- ERRITMO HEZKUNTZA.
- 3.- AHOTS HEZKUNTZA.
- 4.- MUSIKA TRESNEN BIDEZKO HEZKUNTZA.

Beraz, guk prestaturiko bideo lanetan erabili ditugun gaiak, ariketak eta argibideak, gehiengo batetan XIXUPIKA liburuetan daude. Ikastaroak direla bide, eta beste zenbait irakasleren eritziak eta frogak baloratuz gero, esperientzi berriak argitaratzea baino bidezkoagoa iruditu zaigu XIXUPIKAK zehaztatu dizkigun esperientziaz baliatzea.

Argi utzi nahi genuke ez dugula musika eta beste ikasgaien arteko bereizketarik egin nahi izan. ESKOLAURREKO haurrari dagokion hotsen

mundua eguneroko sentierekin, biziarekin, ezaupideekin elkarlotzen dugu, musikari berez dituen gaitasunak eta ahalmenak eskatuz, haur kreatiboak, kritikoak eta sozializatuak bideratu nahi ditugun honetantxe. Nortasunaren bilakaeran, gizartearen aurrean bere protagonismoaren konzientzia sendotu behar duen garaian, musika hezkuntza dela eta ez gara hipnosis estetikora haurrak eramanez ibiliko. Inguruan ditugun zenbait haurren erasonahiak eta gogogabetasunak gainditzeko zerbait serioagoa beharko dugu, flauta goxoaren erakusketa baino. Beraz ez dugu identifikatu nahi izan, eta gutxiago Eskolaurrean, delako Musika Hezkuntza eta instrumentarium ORFF- delakoaren errepertorioa. Gure artean behintzat irme jarraitzen bait du egun hain ezaguna den esaldia:

MUSIKA, UME GUZTIEK ESKURATZEKO ESKUBIDE DUTEN ONDARE UNIBERTSALA DA.

Azken finean, bideo sail honek sujerentzi xorta bat besterik ez luke izan behar: haurren eguneroko bizitzan oinarritu ditugu gure lanak, eta irakasleak eguneroko beharkizun eta arazoaren arabera moldatu beharko luke bere musikak egiteko gogoak, eta konpromisoa.

Ezagutzen gaituenak badaki eta ezagutzen ez gaituenak behingoz jakin dezala, denok aurrera egin behar dugun honetan ea garelako bestek eskua noiz luzatuko itxaropenetan bizi izan. Eta inguru inguruko zenbaiten ipurmasailak oso mugikorrek bilakatu diren honetantxe, guretzat behintzat zera gelditu da pixka bat baterako argi: "han eta hemen txakurrak hankutsik, eta inguruan bizten diren ideiak ugariak eta dizdiratsuak izanik beste zerbait dela guneroko egoerak eta etorkizuna etengabe baldintzatzen ari zaiguna,

IRAUPENA, alegia".

A.	Entzumen Hezkuntza
-----------	---------------------------

Mendialdean.
Itsasaldean.

Orientabideak.

ENTZUMEN HEZKUNTZA

“Umea ustekabeko mirariez hornitua dagoen soinu-mundu batean murgildua aurkitzen da. Bere kasa aurkitzen du, adibidez, haizeak belarretan zehar iragatean sortzen duen musikatasuna, txorien abestiari jarraitzen dion isilunearen dinamika, trenaren iragapena, kanpaien urrutiko hotsa, norberaren ahotsaren baliabide desberdinak, hasi txutxuputxutik eta txilioraino. Gu nagusion perspektibatik gusto txarrekotzat ematen diren hainbat eta hainbat fenomeno akustiko, umearentzat entzutea, bereiztea eta kritikatzeari merezi luketen soinuak dira, eta lehen une batean erne edukitzen du bere atentzioa. Erlojuaren tiki-taka, kanilaren tantaka edo moto baten burrunba bezain estimulagarri gertatzen zaizkio, esate baterako, atabalaren tarrapata, edo kariloia labaintzea, edo eta tuba baten orroak”.

Horretarako jakina da zein izan behar duen irakaslearen jomuga: ingurugiroak ezartzen dizkigu mugak gaindituz goiko mendiko errekek eta garoak ezagutzera abiatu.

Hitzaren aurretik sentierak eta bibentziak proposatzen dituen HEZKUNTZAren hildotik gabiltzanez, mendirako deiak eginaz “Egun, on Mikelatxo, egun on!”, mendi aldetik ibiliz, ez bakarrik ibilaldiaren erritmozko eskema ugariak, entzumenaren arlo berezi honen inguruan aurkitu ditzakegun eragin denak barneratuz landu nahi ditugu.

Sail honetan, beraz, MOTRIZITATEA delakoari dagokionez, IKUSMEN eta ENTZUMEN arloak nahi ditugu arreta bereziaz kontutan hartu. Kontuz eta KINESTESIA egokienean ekinaz, MUSIKA HEZKUNTZAren ildotik gabiltza bete betean.

MENDIALDEAN

Mendialdera joateko dira "Goiko mendian" delako kantaren deiak. Mendialdera joanaz, ezagutu ahal izango ditugu, gulu-guluka datozen erreka, ur hotzetan mogitzen diren amuarrainak, garo artean, pagadietan, belardietan guk jaso zain dauden perretxikuak, marrubiak etabar. "Goiko mendian, gulu-gulu-gu kanta kantari erreka ari zaigu". Eta erreka kantaldiak entzun nahi baditugu, zer egiten dugu ohean lo? "Jeiki, jeiki, jeiki! Mendira joateko gaude zure zain".


Mendialdeko bibentziak, abenturak dira bideo-sail honek hasiera hasieratik agertzen dizkigunak. "Ku-ku! kukuak, kukurruku! oilarrak, txistuka eta kantari, botak oinetan, motxila bizkarretik, ibiltzen, ibiltzen ari naiz nire herriko bideetan, eta gure identifikapen pertsonala sendotzeko behar ditugun harremanak ari gara sendotzen gure ingurugiroan tipi-tapa mogituz. "Ederra bait zara, Euskadi. Maite zaitut benetan".

Eta rikirras, aitzurak baratzetan, zenbait dantza eskemen oinarriak bibentziatzeko posibilitateak ditugu baserriko lanak ezagutuz, trikitrak, trikitrak, soroetako traktoreek mogimenduaren adierazkortasuna ari zaizkigu seinalatzen.

Eta sorotik, zelaitik, menditik gabiltzanean hainbeste ustekabekoren artean, naturala deritzagu sagarrak biltzeari, sua egin eta sagar erreka jateari, eta denbora denean, gaztainak biltzeari, eta danbolinean erretako gaztainak probatzera, baina ez azokan erosiak, gu geuk bilduak eta gu geuk erretakoak. Eta gaztaina eta sagarren inguruan, egur biltzeak, eta sufestak antolatzea, eta suarekin harremanak berpiztea.

Eta ingurugiroan ditugun bizidunak ere ezagutuz maitatzeko aukera ere izaten dugu: nekazaria, nekazariaren zakurrak, astoak eta eguneroko nekeak. "Behin joan nintzen azokara" eta "txakurrak uau, kantuak miau", "bat eta bi, hiru eta lau, amak etxetik egin dit dei". "Hogei bosteko ehun xuxen, gure bildotsak denak gizen".

Entzumenaren ahalmenak zuzpertzuz, indartuz, sakonduz, ezin ugaria-goak izan gero gelako babesean lantzeko behar ditugun sentierak eta bilbentzia atseginak. Eta denak, espazioaren mugak gaindituz, hain gertuan, hain bertan, hain begien aurrean, ditugun soroak, baratzak, zelaia, mendiak, pagadiak, basoak, oinaz ibilian kolpatuz, belarriaz entzunaz barneratuz, begiz ikusiz inguru guztia geureganatuz.



1– Goiko mendian

Re M La7 Re M Sim Fa#m Re M La7 Sim La7

Goi - ko mendi - an gulu, gulu, gulu, gu. Kan - ta kanta - ri erre - ka a - ri zai -

Re M Sol M La7 Re M mi7

gu. Ur hotzetan a - morrainak banan, banan, bi - nan, garoe - tan sor -

La7 Re M La7 Re M Sim

Tu dira ja - nari bikai - nak. Goi - ko mendi - an gulu, gu - lu, gu - lu,

Fa#m Re M La7 Sim La7 Re M

gu. Kan - ta kanta - ri erre - ka a - ri zai - gu.


GOIKO MENDIAN

- 1.- Goiko mendian
gulu, gulu, gulu, gu
kanta kantari
erreka ari zaigu.
Ur hotzetan amorrainak
banan, banan, binan,
garoetan sortu dira
janari bikainak.
Goiko mendian
gulu, gulu, gulu, gu
kanta kantari
erreka ari zaigu.
- 2.- Kuku! kukuak
kantuz udaberrian,
Uau! Uau! zakurra
ari da baserrian.
Kikiriki! Kukurrruku!
oilarrak egin du,
gaueko izar argiak
agur esan digu.
Kuku! kukuak
kantuz udaberrian
Uau! Uau! zakurra
ari da baserrian.
- 3.- Egun berri bat
sartu zaigu leihotik
zabalik ditut
bi begiak gozetik.
Estalkiak utzi eta
jeiki naiz ohetik
nahiko lo egin dut
eta banoa etxetik.
Egun berri bat
sartu zaigu leihotik
zabalik ditut
bi begiak goizetik.
- 4.- Tip-tap ibiliz
tip-tap mendi bidetik,
botak oinetan,
motxila bizkarretik.
Txistuka eta kantari
alai eta arin,
gun onak eskainiaz
egun berriari.
Tip-tap ibiliz
tip-tap mendi bidetik,
botak oinetan,
motxila bizkarretik.

2- Egun on, Mikelatxo!

E- gun on, mi-ke-latxo e-gun
 on! E- gun on, mi-ke-latxo e-gun on! Jeiki, jeiki, jeiki bai!
 Jei-ki, jeiki, jeiki, bai! Mendira joa-telko gaude zu-re zain.

Egun on, Mikelatxo egun on!
 Egun on, Mikelatxo egun on!
 Jeiki, jeiki, jeiki, bai!
 Jeiki, jeiki, jeiki, bai!
 Mendira joateko gaude zure zain.
 Jeiki, jeiki, jeiki, bai!
 Jeiki, jeiki, jeiki, bai!
 Mendira joateko gaude zure zain.



3- Ibiltzen ari naiz

•Re M Fa#m Sim SdM ReM

I - bil - tzen, i - biltzen a - ri naiz nire he - rri - ko bi - de - tan.

SdM ReM trit

Zein e - de - rrak di - ren men - di - ak hor - na - bil a - me - tse -

La7 ReM Fa#m Sim SdM

tan. I - bil - tzen, i - biltzen a - ri naiz nire he - rri - ko

ReM SdM ReM

bi - de - tan. E - de - rra bait za - ra, Eus - ka - di! Maite

La7 ReM La7 ReM

zai - tut be - ne - tan. Ku - kuka, ku - kuka, kukuak ba -

La7 ReM Do#M

soe - tan. I - a - hi! I - ahi - a! Gurdiskal - dapetan. Aida, gorri! Aida, xuri!

Fa#M Do#M Do#M Fa#M La7

I - tzaia ne - kaketan. Aida, gorri! Aida, xuri! Au - rera, gur - di!

D. C.
eta
Fine.

IBILTZEN ARI NAIZ

Ibiltzen, ibiltzen ari naiz
nire herriko bidetan.
Zein ederrak diren mendiak
hor nabil ametsetan.
Ibiltzen, ibiltzen ari naiz
nire herriko bidetan.
Ederra bait zara, Euskadi!
Maite zaitut benetan!

Kukuka, kukuka,
Kukuak basoetan.
lahi! lahia!
gurdiak aldapetan.
Aida, gorri! Aida, xuri!
itzaia nekaketan.
Aida, gorri !Aida, xuri!
Aurrera, gurdi!

Ibiltzen, ibiltzen ari naiz
nire herriko bidetan.
Zein ederrak diren mendiak
hor nabil ametsetan.
Ibiltzen, ibiltzen ari naiz
nire herriko bidetan.
Ederra bait zara, Euskadi!
Maite zaitut benetan!

Rikirras! Rikirras!
aitzurak baratzetan.
Rikirras! Rikirras!
beserriko lanetan.
Trikitrak! Trikitrak!
traktoreak soroetan
Trikitrak! Trikitrak!
mendi bidetan.

4– Basoko egur zotzak



1.– Basoko egur zotzak
luze ta motzak.
Basoko egur zotzak
luze ta motzak.
Garoak garo
neguan Olentzaro.
Garoak garo
neguan Olentzaro.

2.– Aldapeko sagarrak
txorten txustarrak.
Aldapeko sagarrak
txorten txustarrak.
Seirak, hamarrak,
non dago, non, otarra.
Seirak, hamarrak,
non dago, non, otarra.

3.– Su ta ke sugarretan
suaren sutan.
Su ta ke sugarretan
suaren sutan.
Sutan sua su
txinpartak ke lainotan.
Sutan sua su
gau ilunak argitan.



5- Behin joan nintzen azokara

Musical score for the song "Behin joan nintzen azokara". The score is written in G major (one sharp) and 2/4 time. It consists of four staves of music with lyrics in Basque.

Staff 1: *Mi m La m Si f mi m La m mi m*
 Behin joan nin - tzen a - zoka - ra e - rosi ru - en ka - tu

Staff 2: *Re M Sol M Re f Sol M Re f Sol M Re f*
 Gat. Ka - tuak miau! miau! Eze - rriak kuxxin! kuxxin! Eze - rriak fli! fli!

Staff 3: *Mi m Si f mi m La m*
 Ezakurrak lau! lau! Nik xaxa be - rari. E - raman ni - on

Staff 4: *Si f mi m*
 a - ma - ri.

BEHIN JOAN NINTZEN AZOKARA

- 1.- Behin joan nintzen azokara
erosi nuen txakur bat.
Txakurrak Uau! Uau!
nik xaxa berari.
Ekarri nuen etxera.
- 2.- Behin joan nintzen azokara
erosi nuen txistu bat.
Txistuak Fli! Fli!
Txakurrak Uau! Uau!
nik xaxa berari.
Eraman nion amari.
- 3.- Behin joan nintzen azokara
erosi nuen txerri bat.
Txerriak Kurrin! Kurrin!
Txistuak Fli! Fli!
Txakurrak Uau! Uau!
nik xaxa berari.
Eraman nion amari.
- 4.- Behin joan nintzen azokara
erosi nuen katu bat.
Kutuak Miau! Miau!
Txerriak Kurrin! Kurrin!
Txistuak Fli! Fli!
Txakurrak Uau! Uau!
nik xaxa berari.
Eraman nion amari.

6-

Bat eta bi

Bat e-ta bi, hiru e-ta lau, Amak u-re-tan sar-tu nau. . Bi ta bi
lau ta beste bi sei. A-mak e-txe-tik e-gin dit dei. Sei ta lau
ha-mar, ta hamar ho-gei. Nork kontu e-gin lore hau-ei. Hogei bos-
te-ko, e-hun xu-xen. Gure bil-do-tsak denak gi-xen.

Bat eta bi, hiru eta lau.
Amak uretan sartu nau.
Bi ta bi lau ta beste bi sei.
Amak etxetik egin dit dei.
Sei ta lau hamar, ta hamar hogeia.
Nork kontu egin lore hauei.
Hogeia bosteko, ehun xuxen.
Gure bildotsak denak gizen.

Katutxo bat, txuri-gorria
kaletikan etorria.
Goxoro goxo, makur makurra,
etxe barruan lapurra.
Txoriak kanta, katua zain,
zeren ametsez dago ernai.
Goizean goizik kaiola hutsik,
egunak ez du kanturik.
Katua kanpoan pozik.
Etxean isil isilik.

ITSASALDEAN

“Goiz batean,
ez nekien zer egin etxean...”


Hori dio Aitorrek, eta ikus dezakegunez ez dio onik egiten egunsentiko pakeak. Eta itsasaldeak ere bere alderdi bereziak dituenaz, itsasaldera eramaten gaitu, aitaren arrasto ondoren. Eta itsasaldean beste soinu-mundu harrigarriarekin topo egin genezake: itsasoa, olatuen erritmo zinkronizatua, olatuen dinamika, harkaitzen partaidetza, kaioen musika laguntza, eta arrantzaleen abenturetan, kainaberak direla, aparejoak direla, a ze lanketa gure beso, esku eta hatzen mogimendu koordinatuentzako.

Eta edonon gertatzen dira ustekabeko harrigarrienak eta hara non datorkigun nor eta BINBAN drogoia, hondartzako lagun berria, Pasaiaiko portua ezagutzeko bidaialari jatorra.

Eta hondartzak ezagutuz, itsasaldeko giroa barneratuz, ez bakarrik arrantzaleak, piratak ere hemen ditugula, itxaslapurrak, naufragoak, altxorak eta planoak. Gure irudimenak ez du ezer haundiren beharrik pil-pil eta pol-pol irakiten hasteko.

“Hondartzara joan nintzen auzoko lagunekin.
Jolasten ibili ginen karramarro batekin”.

Eta musika hezkuntzaren ildotik abiatu denak ezagunak ditu XIXUPIKA-k dela eta eskolaurreko haurrentzat asmatu ziren ekintzak, karramarroen mogimendu berezia eta aldrebesa eraginaz, karramarro hitzaren “errez” beteriko jolasak burutzeko ideiak proposatuz. Haur guztientzat hain ezagunak eta estimulagarriak diren “altxorraren” kontuak dira jolasdramaren bidez berbiztu nahi ditugunak: gure motrizitate eskema guztia “movidia” bikainean jartzen duen itsasgiroko abentura ezaguna.



7-

Binban dragoia

Goiz batean ez nekien zer e-gin etxe-an as-per asper e-ginda nengo-
 en sukalde-an. Be-gira begi-ra gelan ha-si nintzene-an ez
 zidan on e-gin egun sen-tiko pake-ak.

BINBAN DRAGOIA

- 1.- Goiz batean ez nekien zer egin etxean
asper asper eginda nengoen sukaldean.
Begira begira gelan hasi nintzenean
ez zidan on egin egun sentiko pakeak.
- 2.- Hantxen nuen aita lasai lasai lo zorrotan.
Halako zurrungak ez dira entzun askotan.
Aspaldi nenbilen arrantzara joatekotan,
zerbait egin beharko nuen gaurko honetan.
- 3.- Gogoz hasi ginen biok batera arrantzan
arraldeko arrainak jarri ziren zalantzan.
Batentzat larrosak, bestearentzat arantzak,
aitarentzat trapu zaharrak, niretzat legatzak.
- 4.- Nire zoriona eta aitaren amorrua,
hortan joan ziren egun hartako orduak.
Halako batean zerbait ona gertatu zen,
sekulako arrantzak aitik egin zituen.
- 5.- Bin Ban dragoi bat zen itsas barnean bizi zen
bakarrik egoten hasi omen zen aspertzen.
Bin Banek mutil bat bere lagun egin zuen.
Hondartzan jolasten biak laster hasi ziren.
- 6.- Bidaia luze bat mutilak bait du pentsatu
hondartzatik hasi eta Pasaian bukatu.
Olatu artean sartu ziren goiz batean,
Biak oso pozik etorri ziren gauean.

8– Hondartzara joan nintzen

Hon - dartzara joan nintzen au-zo-ko lagune-kin jo-las-ten ibili
 gi-nen ka-rra-marro bate-kin. I-tsa-saldean ku-lunka on-tri bat ageri
 da gi-zon bat ikusi du-gu on-tri-txoan etzan-da. Pa-tzun, papa-
 tzun, papa-tzun, papa-tzun.

- 1.– Hondartzara joan nintzen
 auzoko lagunekin
 jolasten ibili ginen
 karramarro batekin.
 Itsasaldean kulunka
 ontzi bat ageri da
 gizon bat ikusi dugu
 ontzitxoan etzanda.

Patzun, papatzun,
 papatzun, papatzun.
 Patzun, papatzun,
 papatzun, papatzun.

2.- Erdi itota zetorren
itsasoko gizona,
berari eman genion
gure laguntza ona.
Esker oneko gizonak
oparitxo bat zuen,
altxorren plano bat zen
pozik jaso genuen.

Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.
Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.

3.- Itsasoz itsasaldetik
itsas-lapurrak datoz
borrokarako prest daude
indarrez eta gogoz.
Makurrak, begibakarrak,
mozkorrak ta maltzurak.
Horrelakoxeak dira
itsasoko lapurrak.

Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.
Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.

4.- Planotxoaren jarraian
hondartzatik gabiltza.
Kutxa bat aurkitu nahirik,
plano bera da giltza.
Piratak etorri ziren
altxorren atzetik.
Indarrez kendu ziguten
plano hura eskutik.

Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.
Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.

5.- Laguntza behar genuen
laguntza etorri zen.
Indio jatorrak ziren
laster antzeman nien.
Itsasoz etorri ziren
arraunketa bizian.
Hondartzan erori ziren
piraten hankazpian.

Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.
Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.

- 6.- Gehiegi edan ezkerro
mozkorra harrapatzen da,
festa ederrak eginda
lotan daude piratak.
Laguntza behar zutenak
libre gelditu dira,
babes bila joaten dira
harkaitz baten azpira.

Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.
Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.

- 7.- Borroka gogorak dira
hondartzan gertatuak,
tranpa ederrak bait ziren
guk ongi prestatuak.
Isil isilik ibiliz
sartu ginen txokora.
Denok seguru gordeta
piratak hankaz gora.

Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.
Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.

- 8.- Azken festak hondarretan
noiz eta orain bertan,
asmo denak bete dira,
pozik gaude benetan.
Orduntxe hartu genuen
erabaki jatorra.
Bai, bai, guretzat altxorra,
Piratentzat zigorra.

Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.
Patzun, papatzun,
papatzun, papatzun.

B.	Erritmo Hezkuntza
-----------	--------------------------

Dantzen lehen urratsak
Jolasmotrizitatea

Orientabideak

MOTRIZITATEA

JOLASMOTRIZITATEA delako saio honen bidez, hona hemen MUSI-KA HEZKUNTZAREN arloan erabili dugun eskema:

1.- OHARMENERAKO DITUGUN GAITASUNEN HEZKETA.

1.1 Kinestesia alorreko diskriminaketa.

- 1.1.1 Gorputzaren konzientzia.
- 1.1.2 Jarreraren sentiera.
- 1.1.3 Bilateralitatea.
- 1.1.4 Lateralitatea.
- 1.1.5 Oreka.

1.2 Gorputzaren irudimenaren onarpena

1.3 Ingurugiroarekin ditugun harremanen sentiera.

- 1.3.1 Lekutasuna.
- 1.3.2 Norakotasuna.

1.4 Ikusmenezko diskriminaketa.

- 1.4.1 Begi zolitasuna.
- 1.4.2 Ikusmenezko norabidekotasuna.
- 1.4.3 Ikusmenezko memoria.

1.5. Entzumenezko diskriminaketa.

- 1.5.1 Entzumenaren zolitasuna.
- 1.5.2 Entzumenaren norabidekotasuna.
- 1.5.3 Entzumenezko memoria.

1.6 Ikusmenezko diskriminaketa.

1.7 Ahalmenen koordinaketa.

- 1.7.1 Ikusmen/eskuen koordinaketa.
- 1.7.2 Ikusmen/oinen koordinaketa.
- 1.7.3 Entzumen/eskuen koordinaketa.
- 1.7.4 Entzumen/oinen koordinaketa.

2.- GORPUTZAREN NOLAKOTASUNA.

2.1 Indarra.

2.2 Malgutasuna.

2.3 Arintasuna.

3.- MOGIMENDUAREN ADIERAZKORTASUNA.

3.1 Jarreran.

3.2 Ekintzan.

3.3 Keinuetan.

3.4 Aurpegiaren esanahietan.

3.5 Pantomiman.

3.6 Dantzan.

3.7 Hitzeko komunikakuntzan.

3.8 Grafismoa.

JOLASMOTRIZITATEA

Ibiliz ibilian, gorputzaren trabarik eta inhibiziotik gabe, haurraren NIA estimuloz beterik doa murgiltzen abentura kreatzaileetan.

Naturalki eta erraz, musikari darion erritmoaren eraginari mugituz erantzunaz, haurraren erritmo pertsonala ingurutik ezartzen zaion erritmo sozializatuaren beharretara moldatzen hasiko da.

Erritmo horren eraginak direla bide JOLAS sozializatuaren ereduaz jabetzen ari da haurra. Proposamenak ugariak eta tentagarraik izanik, gogo onez eta arduraz erabaki behar du haur horrek bere NIA NOR sentitzen, aukeratu duen ingurugiroan.

ESPAZIO/DENBORA elkartze horretan, haurra, musikaren eragintza-pean, bere gorputzaren ahalbideaz ohartzen dabilkigu,

- gorputza espazioarekin egokituz,
- dimensioaren sentiera barneratuz,
- keinuz eta espresioz mogimenduari plastizitate estetikoa, pertsonala, emanaz, hau da, inertziak, estereotipoak, ohikeriak, gaindituz.

Berriro ere betikoa diogu, eta hori da, hasiera hasieratik sail honek azpimarratu nahi diguna: haurraren bizitza ez dagoela familiako eta eskolako espazioak mugatua. Gizarteratze progresibo honetan ibiliz ibilian, ikusiz ikusian eta galdeginaz galdegin, eskolaurreko haurra espazio zabalagoa ari zaigu erreklamatzeko, eta noiz amaren eskutik, noiz irakaslearen babesean, azken finean autonomiaz espazioaren moldatuz.

9– Olio banbolio

The musical score is written in 2/4 time with a key signature of one sharp (F#). It consists of three staves. The first staff begins with a double bar line and a repeat sign, followed by the notes G4 (Mi), A4 (La), and B4 (Mi). The lyrics 'O - li - o, banbo - li - o, a - po - li -' are written below. The second staff starts with a treble clef and a key signature of one sharp. It contains the lyrics 'o. O - li - o, banbo - li - o, a - po - li - o. Ti - ro - li - ro ti - roka'. The notes are G4 (Si), A4 (Mi), B4 (Si), C5 (Mi), D5 (La), and E5 (Si). The third staff continues the melody with the lyrics 'Pin! Pan! Pun! Ti - ro - li - ro ti - roka Pin! Pan! Pun!'. The notes are G4 (Mi), A4 (Si), B4 (Mi), C5 (La), D5 (Mi), E5 (Si), and F#5 (Mi).


Olio, banbolio, apolio.
 Olio, banbolio, apolio.
 Olio, banbolio, apolio.
 Olio, banbolio, apolio.

Tiroliro tiroka Pin! Pan! Pun!
 Tiroliro tiroka Pin! Pan! Pun!
 Tiroliro tiroka Pin! Pan! Pun!
 Tiroliro tiroka Pin! Pan! Pun!


Jolasmotrizitatea.

- * BI HANKA DITUGU ETA BI BESO ETA BI ESKU.
Gorputz eskemaren ezaupidea zuzpertztea da dantza honen helburua.
- * Dantzaren kodeak erritmo eskema honen azpiegitura erabiltzen du.

Dantzarien jarrera.
Binaka aurrez aurre.



Eskuineko hanka
Gora
Behera



Salto
eta
Txalo



Ezkerreko hanka
Gora
Behera



Salto eta
Txalo



Aurrera
Kurutzatuz
Aurrera
Jira



Salto eta
Txalo




Aurrera
Kurutzatuz
Aurrera
Jira



Salto
eta
Txalo

- * Tonuera: diatonikoa.



10– Txakurra dator atzetik



1.– Txakurra dator atzetik,
goazen etxera kaletik.
Txakurra dator atzetik,
goazen etxera kaletik.

2.– Katua dator atzetik,
goazen etxera kaletik.
Katua dator atzetik,
goazen etxera kaletik.

3.– Zezena dator atzetik,
goazen etxera kaletik.
Zezena dator atzetik,
goazen etxera kaletik,

4.– Arkumea dator atzetik,
goazen etxera kaletik.
Arkumea dator atzetik,
goazen etxera kaletik.

Jolasmotrizitatea.

- * OINAK, BELAUNAK, BESOAK, ESKUAK, AHOZKADAK.
- * Artikulapenen disozia eta erritmo eskemaren eraginera

- * Erritmo eskema:



11–

O, bugi bugi!

O, bugi bugi bu - gi, bai! O, bugi bugi bu - gi, bai!

O, bugi bugi bu - gi, bai! Pa - ran pan pan pan pan!

Hey! Hey! Hau da ni - re beha - tza hau da bes - te beha - tza. Hau da ni -

re esku - a, hau da bes - te esku - a. O, bugi, bugi, bu - gi, bu - gi,

bu - gi, bai! Pa - ran pan pan pan pan Hey!

O, bugi bugi bugi, bai!
 Hey!
 O, bugi bugi bugi, bai!
 Hey!
 O, bugi bugi bugi, bai!
 Paran pan pan pan pan!
 Hey!

1.– Hau da nire behatza,
 hau da beste behatza.
 Hau da nire eskua,
 hau da beste eskua.
 O, bugi bugi bugi bugi, bugi, bai!
 Paran pan pan pan pan! Hey!

2.– Hau da nire begia,
 hau da beste begia.
 Hau da sudur punta,
 hau da aho zuloa.

4.– Hau du ukondo bat,
 hau da beste ukondoa.
 Hau da nire sorbalda,
 hau da beste sorbalda.

3.– Hau da belarri bat,
 eta hau da bestea.
 Burua beheraka,
 burua goraka.

5.– Hau da nire hanka,
 hau da beste hanka.
 Hau da ipurdia,
 berriz ipurdia.

JOLASMOTRIZITATEA.

- * Gorputz eskemaren antolaketa, eta sentiera.
–eskua, behatza, ukondoa, ipurdia, bizkarra, begia, ahoa, sudurra, belarria.
 - * lateralitatea.
 - * gorputz espresioa: jarrera, zutik, pantomimak, keinu adirazkorrenen bidez mimoak eginaz.
 - * – Dantza: lerroka eta inguru guztian mogituz, eskuak, aurrekoaren sorbaldan jarriaz, hey! karraxialdien unean oinak goraka igoaz, txaloak eta bueltak koordinatuz eta disoziatuz.
 - * – Haurren inhibizioak eta taldean integratzeko dituzten traumak eta fobiak gainditzea nahi litzateke, dantzaren estetikak baino barnearen desblokeoak izanik gure helburuen lehentasuna.
-
- * Erritmoaren eskema.
 - * Tonuera: diatonikoa.





12– Korro Korroan

Re M Si 7 mi m Sol M

Ko - rro korro ko - rroan jo - la - sean ta kan - tuan. Ko - rro korro ko - rroan o -

La 7 Re M La M Re M mi 7

rain dira, bai, kontuak kon - tuak. Kan - ka puntaz u - ki - tuaz Bat! Bi!

Hiru! Be - hatz puntaz kol - pa - tuaz Bat! Bi! Hiru! Be - laur gainaz u - ki tuaz

Bat! Bi! Hiru! U - kon - doaz kol - pa - tuaz Bat! Bi! Hiru! Be - la - rriaz u -

ki tuaz Bat! Bi! Hiru! Su - dur puntaz kol - pa - tuaz Bat! Bi! Hiru! I -

pur - diaz u - ki - tuaz Bat! Bi! Hiru! Exi - lin bueltak o - rain.

Re M mi 7 La M

KORRO KORROAN

Korro korro korroan
jolasean ta kantuan.
Korro korro korroan
orain dira, bai, kontuak.

- | | |
|---|--|
| 1.- Hanka puntaz ukituaz
Bat! Bi! Hiru! | 5.- Belarriaz ukituaz
Bat! Bi! Hiru! |
| 2.- Behatz puntaz kolpatuaz
Bat! Bi! Hiru! | 6.- Sudur puntaz kolpatuaz
Bat! Bi! Hiru! |
| 3.- Belaun gainaz ukituaz
Bat! Bi! Hiru! | 7.- Ipurdiaz ukituaz
Bat! Bi! Hiru! |
| 4.- Ukondoaz kolpatuaz
Bat! Bi! Hiru! | 8.- Txilin bueltak orain. |

JOLASMOTRIZITATEA.

- * "Irri/dantza" delakoaren eskema ezaguna da jolas honen ardatza. Jolastuz eta dantzatzuz, ikutuz eta kolpatuz, haurren gorputza eta ingurua ari gara harreman bizienetan jartzen.


- hanka puntak
- behatz puntak
- belaunak
- ukondoak
- belarriak
- ipurdiak.

- * Bat bi hiru! oihukatuz inguruan dugun lekutasuna sentitzen ari gara.
- * Dantzaren kodea: Korro korroan, elkarri eskuak emanaz eta kalejira aireko erritmoaren jarraian, batera eta bestera bobobilean mogituz.

Une jakinetan, mezuen arauera, gorputzezko erantzunak emanaz: lurra kolpatuz, lurra ikustuz, hanka puntaz, behatz puntaz, etabar.


- * Erritmo eskemak


(A)



- * Tonuera: diatonikoa.

(B)





13–

John Braun

mi M Si 7

John Braun indio tsiki bat zen. John Braun indio tsiki

mi M Si 7

bat zen. John Braun indio tsiki bat zen. Indio tsiki bat zen,

mi M Si 7

John. Tsiki bat, tsiki bi, hiru indio tsi-ki, lau tsiki,

mi M

bost tsiki, sei indio tsi-ki, xaxpi tsiki, xortzi tsiki, bede-ratzi indio

Si 7 mi M

tsi-ki, hamar indio tsi-ki John.

JOHN BRAUN

John Braun indio txiki bat zen.
John Braun indio txiki bat zen.
John Braun indio txiki bat zen.
Indio txiki bat zen, John.


Txiki bat, txiki bi, hiru indio txiki,
lau txiki, bost txiki, sei indio txiki,
zazpi txiki, zortzi txiki, bederatzi indio txiki,
hamar indio txiki,
John Braun indio txiki bat zen.
John Braun indio txiki bat zen.
John Braun indio txiki bat zen.
Indio txiki bat zen, John.

Jolasmotrizitatea.

Indioan inguruan erabatetako pantomimak osatu dira. Estereotipo ugari ezarri zaizkigu: indioak, apatxeak, bakeroak, pistoleroak, zaldunak, zaldiak, kuarteroak, indioen dantzak, indioen garraxiak, bakeroen dantzak, bakeroen garraxiak, indioen ibilkerak, bakeroen ibilkerak. Eta gu behintzat ziur gaude: Far West delako ingurugiro honetan haurrak ditugu iaioenak, gu arlote batzuk besteterik ez gara, berak dakite fletxek ze hotsa ateratzen duten, pistolak, errebolberrak, karabinak, etabar urrutian, ala gertuan, harkaitzetan edo basamortuan nolako hotsak, nolako danbadak dituzten. Gurea aukera ematea besterik ez da izaten: gainontzekoak, nola jarraitu eta noiz bukatu, aurretik jakingo bagenu...

- Zenbaketaren sentiera eta nolabaiteko memoritzapenak landu ohi dira kantu hau dela bide. 1, 2, 3... eta alderantziz: 10, 9 8...

* Erritmoaren eskemak:



* Tonuera: diatonikoa.

14- Nire izeba Pantxika



Pantxika du izena
nire izeba gizenak
kaletikan doa
gure Pantxika potola.

- 1.- Honela egiten du bere bi hanka motzaz,
honela egiten du bere bi hanka motzaz.
- 2.- Honela egiten du bere gona gorriaz,
honela egiten du bere gona gorriaz.
- 3.- Honela egiten du bere txapela haundiaz,
honela egiten du bere txapela haundiaz.
- 4.- Honela egiten du besoetan duen poltsaz,
honela egiten du besoetan duen poltsaz.
- 5.- Honela egiten du bere ipurdi gizenaz,
honela egiten du bere ipurdi gizenaz.
- 6.- Honela egiten du bere gorputz osoaz,
honela egiten du bere gorputz osoaz.

Jolasmotrizitatea.

Gure gona gorrizko hanka motza izeba Pantxikaren karikatura bat izango da baina estimulagarria bilakatu da gure eskolaurrean. Nola egiten du? Nola mogitzen da? Eta jakina, edonon ditugun potolak eta ipurdi gizenak berriz ere traumabidean ditugula. Hori bai da oraingo ariketak eskatzen digun ordaina: bata edo bestea haserre ikusteko arriskua. Dena gorputz espresioaren ohorean!

Kantuen bidez datozkigun mezuak entzutea besterik ez dugu, une berean egin behar dugun guztiaren berri zehatza izateko.

- Honela ibiltzen da hanka motza.
- Honela astintzen du gona gorria.
- Honela mogitzen du buruko txapel haundia.
- Honela egiten du besoetan duen poltsaz.
- Honela egiten du bere ipurdi gizenaz,
eta azken batean,
mogimendu guztiak koordinatuz,
- honela egiten du bere gorputz osoaz.

* Erritmo eskema:



* Tonuera: diatonikoa.



15— Sua, sua, sisutan

ReM SolM ReM SolM ReM La7

Sua, sisu sisutan, basoko sasien besoe-tan, Sua, si-su sisu-tan,

La7 ReM ReM La7 SolM ReM ReM La7 SolM ReM

basoko sasien besoe-tan. Sua, sisu sisutan, basoko sasien besoe-tan.

ReM SolM ReM

Sua, sisu sisu-tan, basoko sasien besoe-tan, Sua sisu sisu-tan,

La7 ReM

basoko sasien besoe-tan.

SUA SISUTAN:

- | | |
|--|--|
| 1.- Suan, sisu, sisutan,
basoko sasien besoetan,
Sua, sisu, sisutan,
basoko sasien besoetan. | SUA, SUA, SUA, SUA
SSSS, SSSS...SSS, SSSS |
| 2.- Sua, sisu, sisutan
hostoen sorbalda gorrietan
Sua, sisu, sisutan,
hostoen sorbalda gorrietan

SSS; SSSS... SSSS. SSSS
SU, SU... SU, SU | 3.- Sua, sisu, sisutan,
sorginak saltoka mendietan,
Sua, sisu, sisutan,
sorginak saltoka mendietan.

4.- Sua, sisu, sisutan,
sugeak, sartuta saskietan.
Sua, sua, sisutan,
sugeak sartuta saskietan. |

Jolasmotrizitatea.

Hotsen jolasa.

Abestiaren erritmikaz baliaturik, dantza bat moldatu da. Espresio bide hau dela eta, motrizitate arloko zenbait puntu interesgarri lantzeko aukerak topatu ditugu:

- ingurugiroaren barne-konzientzia.
- esku eta besoen mogimendua.
- eskuina eta ezkerren ezaguera.
- erritmikaren eragintzapean, pausaldien sinkronizazioa, bi eskuen disoziaketa, etabar.



Fonemafonia arloan, S fonema lantzea izan da gure lehen helburua. S, Z eta X fonemak ahozkatzeko izan ditugun oztupoak kontutan izanik, banan-banan landu behar ditugula uste dugu, bakoitzari dagokion musikalitasuna eta nortasun berezia errekuiperatu arte. Asmo honen eragintzapean antolatu digu S inguruko jolas programa. Ariketak direla eta XIXUPIKA metodoa erabili nahi izan dugu.

Zer da, edo zertan oinarritzen da delako XIXUPIKA metodoa?

Haurrek errepikatzen duten gaitasunez, erraztasunaz, joeraz baliaturik, hotsen eta hitzen ereduak barneratzeko sistema arrunt bat besterik ez dugu delako XIXUPIKA metodoa:

Gure proposamena / haurren erantzuna	
SSSS	/ SSSS
Su	/ Su
Sua	/ Sua
SSSS	/ SSSS

* Dantzaren kodea:



* Erritmikaren eskema



* Tonuera: diatonikoa

16–

Zizareon zizarea

La M Mi m La M

Zizare on zi- zarea oin hotsak
Zizi paza i- zarpean esku sartak

Zi - pa zi-zi- pa zi-zi pa- za pa- zo.

Zizareon Zizarea
Zizi paza izarpean

Zipa zizipa
zizi paza pazo.
Zipa zizipa
zizi paza pazo.

Jolasmotrizitatea.

- * Z fonemaren inguruan moldatu dugu ondorengo ariketa. Ezinbestekoa iruditzen baitzaigu euskal fonemn nortasunak errekuaratzea, baina ez idazkiz, mintzoz baizik. Mintzoaren gaitasunaz baliatzen gara Z, S, eta X fonemen arteko bereizketak barneratzeko. Jolasak eta dantzak medio bat besterik ez dira hizkuntza mintzatuaren arloan egin nahi ditugun aurrerakadak ziurtatu ahal izateko.

Ez kontutan hartu esaldien esanahia: Zizareon zizarea, zizipaza izarpean, zizi paza pazo, Z lantzeko okasioak besterik ez dira. Eta dantza eskemak inguruan jaso ditugun zenbait erritmika arruntzen mogimenduzko errepikatze batzuk besterik ez dira:


- oinaz lurra kolpatuz.
- esku sartaz erritmo bera errepikatuz.

- * Jarrera: denok zutik, bi lerrotan, elkarri begira, ala borobilean. Gorputz osoaren malgutasuna, kantuaren erritmozko eragin guztiak mintzoz bezala gorputz osoz adieraziaz.

- * Erritmo eskemak.



- * Tonuera: diatonikoa.





17-

Zapatalaria

mi M La M mi M La M mi M La M Si 7

Zapa, zapa zapa-ta-lari e -ne joxe ma-ri, za-pa-ta konpontzen a -
 joxe mari zapa-ta-lari kan -tari a-lai - a es-ku bate-an mai-lu-

mi M Si 7 mi M mi M Si 7

ri da kol - pe ka kanta-ri. Kol - pe, kolpe, kolpe -ka, josi eta jo - si josi eta
 a du bes - tean parroi - a.

mi M Si 7 mi M

jo - si kolpe kolpe kolpe -ka josi eta jo - si rik zapa-tak. Aria,

Si 7 mi M 1^a Si 7

hartu argira - ri - a o-rriatzen Zast! Korapilo bat.

Si 7 mi M

Zast! Korapilo bat.

ZAPATALARIA

Zapa, zapa, zapatalari,
ene Joxe Mari,
zapata konpontzen ari da
kolpeka kantari.

(bis)

Haria, hartu argizaria,
orratzan zarzt!
Korapilo bat. Korapilo bat.

Kolpe, kolpe, kolpeka,
josi eta josi
josi eta josi
Kolpe, kolpe, kolpeka,
josi eta josirik zapatak

(bis)

Joxe Mari zapatalari,
kantari alaia
esku batean mailua du
bestean porroia.

(bis)

Jolasmotzizitatea.


* Bi esku ditugu.

* Keinuak eta hotsak hitzen esanahien aurretik.
Zapata konpontzen, esku batean mailua, bestean porroia.
Kolpe eta kolpe, haria, argizaria, orratza, korapiloa.
Dantzatzuz eta zapatarien eredua gorputz espresioz landuz bi
eskuen zereginak bibentziatzen ari gara.

* Dantzaren hiru alderdiak:

- 1.- Denok zutik eta ibilian, borobilean mogituz, zortzi taupaden eraginera aurrera eginaz eta itzulika jiratzuz, gorputza lasai-penez, biguin eta adierazkor, esku batez mailuaren eredua imitatuz, beste eskuaz porroiaren ideia adieraziz.
- 2.- Denok lurlean jezarrita, erritmoaren eraginera zapatalarien mailu kolpeak espresatuz, eta jostunaren keinuak eginaz.
- 3.- Jezarririk jarraituz zapatalariaren pantomima, aire librean eta espresiboki kantuen bidez datozkigun mezu guztiei erantzun zinetiko egokiena emanaz.

* Erritmo eskemak:



* Tonuera: diatonikoa.

18-

Haurrak ikas zazue

Haurrak i - kas za - zu - te eusk min - tza - tzen,
ongi pi - lo - tan e - ta o - nes - ki dan - tza - tzen.
Haurrak i - kas za - zu - te euske - raz min - tza - tzen,
ongi pi - lo - tan e - ta o - nes - ki dan - tza - tzen. Ai - re -
tun txikitun aire - tun leire. aire - tun txikitun ai - re -
tun leire ai - re - tun txikitun ai - re - tun leire ai - re -
tun txiki - tun le - i - re lei - re.

Haurrak ikas zazue
euskera mintzatzen,
ongi pilotan eta
oneski dantzatzen

Airetun txikitun
airetun leire.
Airetun txikitun
airetun leire.

Gure kantu zaharrak
konserba ditzagun
aide politagorik
ez da sortu inun.



19–

Ibiliz ibilian

mi M Si 7 mi M Si 7 mi M Si 7 mi M
 I - biliz i - bi - li - an zabalik bi begiak amatzoren eskutik
 Si 7 mi M $\text{Fa \# M}$ Si M $\text{Fa \# M}$ Si M
 jakin nahi nu - ke jakin nor bizi den herrian, nor a - ri den lanean.
 mi M Si 7 mi M
 I - tsasalde - tik nabil galdeginaz galdegin. Arrantzale - a naiz ni.
 Si 7 mi M
 Zer - bait gehia - go dakit .

IBILIZ IBILIAN

Ibiliz ibilian
zabalik bi begiak
amatxoren eskutik
jakin nahi nuke jakin
nor bizi den herrian
nor ari den lanean.

- | | |
|--|--|
| 1.- Itsasaldetik nabil
galdeginaz galdegin.
Arrantzalea nazi ni
Zerbait gehiago dakit. | 4.- Frontoi aldetik nabil
galdeginaz galdegin.
Pilotaria naiz ni.
Zerbait gehiago dakit. |
| 2.- Parke batetik nabil
galdeginaz galdegin.
Jostun abila naiz ni.
Zerbait gehiago dakit. | 5.- Herri bidetik nabil
galdeginaz galdegin.
Suhiltzailea naiz ni.
Zerbait gehiago dakit. |
| 3.- Kale kantoitik nabil
galdeginaz galdegin.
Sukaldaria naiz ni.
Zerbait gehiago dakit. | 6.- Baratz albotik nabil
galdeginaz galdegin.
Aizkolaria naiz ni.
Zerbait gehiago dakit. |

JOLASMOTRIZITATEA.

Haurraren jakinminak eta bizipozak seinalatu nahi ditugu ibilaldi honen ildotik.

Kantuaren erritmoak garbi markatzen digu ibilaldiaren moduloa. Taup-/taup beltzen eraginak pausaldiaren kadentzia markatzen digu. Baina, hots, ez da nolanahiko ibilaldiaren pausaldia: haurra arretaz beterik mogitzen da, begiak zabalik, inguruan zer gertatzen den jakin nahi du, nor bizi den herrian, nor ari den lanean. Beraz, erritmoa seinalatzean kontutan behar dugu izan haur horren barne korapilotsua: hau arrantzan ari da, beste hori josten, hori sukaldaria da, beste hura pilotaria. Suhiltzailea ezagutzeko aukera ere izan du, eta berarekin mogitzen bagara laster ezagutuko ditu inguruko pertsonaia xelebreenak. Guk gure aldetik nolabait mugatzen ari gara haurrak aztertu nahi duen ingurua: ikusi ahal izan dituen pertsonaiak eskuz baliatzen dira, arrantzan egiteko, jantziak josteko, sukaldeko lanak egiteko. Haurraren ikuspuntuak musikaren alorrean zentratu nahi ditugu, eta ibiliz ibilian, ikusiz ikusian, eta galdekizunei erantzunaz, zera da garbi utzi bahi genukeena: musikalaria izateko, musikak egiteko, gorputzak, -eskuek- duen ezinbesteko garrantzia.

* Erritmo eskemak.



20-

Galdezka nabil



Galdezka, galdezka na-bil zertara-ko ote di-tut nik? Galdezka,
galdezka na-bil esku bat e-ta es-ku bi. Zertara-ko? Zertara-
ko? Galdezka, galdezka na-bil. Errekan praka zaharrak garbitzeko.
Hori txuriaz botorak josteko.
(Keinuak) Itsasoan arrantzan egiteko.
Horma batetan hiltzak saltzeko.
(Keinuak) Oliotan arraultzak prejitzeko.
Zuhaitz enborak haizkoraz moztzeko. (Kainuak)
Hortara-ko? Hortara-ko? Gehiago jakin nahi nuke nik orain-dik.
D.C.

Galdezka, galdezka nabil
zertarako ote ditut nik?
Galdezka, galdezka nabil
esku bat eta esku bi.
Zertarako? Zertarako?
Galdezka, galdezka nabil.

1.- Errekan praka zaharrak garbitzeko.
Itsasoan arrantzan egiteko
Oliotan arraultzak prejitzeko.

Hortarako? Hortarako?
Gehiago jakin nahi nuke nik oraindik.

Galdezka, galdezka nabil
zertarako ote ditu nik?
Galdezka, galdezka nabil
esku bat eta esku bi.
Zertarako? Zertarako?
Galdezka, galdezka nabil.

2.- Hari txuriaz botoiak josteko.
Horma batetan hiltzeak sartzeko.
Zuhaitz enborrak aizkoraz mozteko.

Hortako? Hortako?
Gehiago jakin nahi nuke nik oraindik.

Jolasmotrizitatea.

BI ESKU DITUGU.

- * Eskuen zeregina da ariketa honen bidez azpimarratu nahi dena.
- * Hasiera batetan psikofoni arloko mezuak bidaltzen ditugu. Kantuak berak proposatzen ditu lehen mogimenduak:
 - praka zaharrak garbitzen.
 - hariaz josten
 - arrantzan egiten
 - iltzeak sartzen
 - arraultzeak prejitzen
 - aizkoraz zuhaitzak mozten.
- * Erritmoaren dinamika barneratuz eta gaindituz, komunikaziorako behar hainbateko berotasuna lortuz gero, ea nork aurreratzen digun BI ESKUZ egin dezakegun zerbaiten ideia.
- * Lagundu, estimulatu, haurren alternatibak espontaneoak, dibernenteak, kreatzaileak izan daitezen.

Orientabideak:

Guk nahi ezean ere inguruak aurea hartu digu, eskolaurreko haurrari zenbat erritmo eskema inposatuz. Telebista dela eta ROCK delakoaren eraginak ongi barneratuak dituzte gure 4, 5, 6 urteko haurrek. Guk ezer landu gabe ere berez irtengo zaie rockaren nolabaiteko eskematxoren bat, eta horra Gorputz Espresioa landuz gero "martxa" onean ingurugirotu dezakegun ROCK ospetsua.



21–

Piano piano

Do M Sd M Do M

Pi - ano piano tin, tan, tin, ton. Pi - ano

Sd 7 Do M 1^a 2^a

piano denori ga - bon! bon! Ho - ne - la mo - gi - tzen ditut DO RE MI FA

Sd M Do M Sd 7 Do M 1^a 2^a

SOL Ho - ne - la mo - gi - tzen ditut SOL FA MI RE DO Ho - DO .

Piano piano
Tin, tan, tin, ton
Piano piano
denori gabon!
Piano Piano
Tin, tan, tin, ton.
Piano, piano
denori gabon!

Honela mogitzen ditut
DO RE MI FA SOL.
Honela mogitzen ditut
SAL FA MI RE DO.

Jolasmotrizitatea.


BI ESKU DITUGU ETA BI ESKUETAN HAMAR HATZ.

Eskuko behatzen konzientzia eta artikulapenen zeregina da ariketa honen bidez indartu nahi duguna.

Musikak pianoaren hots eta estilo berezienak seinالاتu nahi dizkigu: pianoa ikasten ari den mutikoaren lehen ariketak, Mozart-eren doinu ezagun bat, eta azkenean, gure festak piano zahar baten inguruan.

Hontaz, ba, pianistaren ereduaz baliatzen gara. Behatzak, eskumuturrak, eskuak, ukondoak eta besoak, sorbalda, lepoa, burua eta buruko tximak, denak mogimenduak jarri nahi ditugu, pianoaren teklek betetzen duten espazio guztia mogimendu nabarmenetan barneratuz.

* Erritmo eskema:




* Tonuera: diatonikoa.

* Ahozkapenak:

Tin Tan Tin Tan

GABON

* Perkusiozko moduloa



22–

Uztaiak gora

Uz - taiak gora go - ra lu - rretik zeru - ra, ji - ra alde ba - te - ra e - ta
 gero beste - ra. Ta be - ra, be - ra, be - rata be - ra, be - ra, bai, uz - tai barruan
 pre - sogel - ditu naiz o - rain! Ran - ro - be - rran Pu, pu, pu, pu, pu,
 pu, pu, pu! Ran - ro - be - rran Pu, pu, pu, pu, pu, pu!

Uztaiak gora gora
 lurretik zerura.
 Jira alde batera
 eta gero bestera.
 Ta behera, behera, behera,
 Ta behera, behera, bai,
 uztai barruan preso
 gelditu naiz orain!

Ranroberran Pu, pu, pu, pu, pu, pu, pu, pu!
 Ranroberran Pu, pu, pu, pu, pu, pu!
 Ranroberran Pu, pu, pu, pu, pu, pu, pu, pu!
 Ranroberran Pu, pu, pu, pu, pu, pu!

JOLASMOTRIZITATEA.


* BI ESKU DITUGU.

- * Uztaiak –arok– bi eskuz hartzearekin batera bolantaren ideia bururatu zitzaigun. Psikofoni mailako mezuak: gora-jira, behera-behera, jira alde batera, jira bestera, ulergarriak eta eginkorrak bilakatzen dira, eta haurren erantzun zinetikoa bat batekoa izaten dugu. Lurrean jezarririk, uztaiak bi eskuz harturik, berehala dugula martxan eta abailan gure Rik robera.


- * Fonemafonia arloan: landu R eta P fonemak.

- * Zaindu arreta haundiz eskolaurreko haurren motrizitatea, abestiaren erritmoa eta dinamika adinarekin moldatuz. Erritmoaren aidea izango bait da gorputz espresioaren egokitasuna baldintzatuko diguna.

- * Erritmo eskema.



- * Tonuera: diatonikoa.



23–

Bra, bra, benedise bra!

Txutxupetan txutxupetan benedise bra! Txutxupetan txutxupetan
 benedise bra! Txutxupetan txutxupetan benedise bra! Txutxupetan txutxupetan
 benedise bra! Bra! Bra! Benedise bra! Bra! Bra! Benedise bra!

Txutxupetan txutxupetan benedise bra!
 Txutxupetan txutxupetan benedise bra!
 Txutxupetan txutxupetan benedise bra!
 Txutxupetan txutxupetan benedise bra!

BRA! BRA! Benedise BRA!
 BRA! BRA! Benedise BRA!
 BRA! BRA! Benedise BRA!
 BRA! BRA! Benedise BRA!

Jolasmotrizitatea:

- * BI ESKU DITUGU.
- * Materialea: soka.
- * Jarrera: haurrak soka inguruan. Belauniko, bizkarra makur, burua makur, eta eskuetan soka.
- * Bra-Bra! esatean, gora gerria, bizkarra besoak eta eskuak.
- * Gorputz espresioa eta mintzozko kodea: Lehen apatx hitzak jarrera berezi bat adierazten zigun. Gure gelako kodean sentieraz beteriko hitza genuen. Gaur TXUTXUPETAN onartu da eta denok ulertu dugu hitz horren esanahia: belauniko, gerria, bizkarra, burua makur.

Oharra:

Arretaz neurtu ariketaren luzatasuna, burua gora, burua, behera, haurrak txorabildu ez daitezen.

- * Erritmo eskema.



- * Tonuera: diatonikoa.

24-

Txilin txilin bonba

La M mi7 La M

Txilin txilin bon-ba gure oi-lo-a non da?
Txilin txilin bon-ba hone-la i-bil-tzen da.

La M mi7 La M Re M La M

Txilin txilin bon-ba e-txe-tik joan da. Bai ote? Ez ote? Ez-
Txilin txilin bon-ba e-xren-ka e-ta-xren-ka.

mi7 La M Re M La M mi7 La M

kerretik es-kui-ne-tik Bai o-te? Ez o-te? As-matu zuk non-dik!

Txilin txilin bonba
gure oiloa non da?
Txilin txilin bonba
Txilin txilin binba
honela ibiltzen da
etxetik joan da.
Txilin txilin bonba
herrenka eta herrenka.

Bai ote? Ez ote?
ezkerretik eskuinetik.
Bai ote? Ez ot?
Asmatu zuk nondik!

Jolasmotrizitatea.

- * BI HANKA DITUGU = Bietatik batek herren egiten du.
- * Mogimenduaren kodea: gorputz espresioz haur denak ibilian hegaztien antzera, *txilin txilin bonba*, bereziki oiloaren ibilaldia adieraziz, *bai, ote, ez ote?* hankamotxetan eta herrenka mogituz.
- * Beso eta oinen mogimendu sinkronikoa.
- * Hitzezko harremanen zuzpertzeta: bai, ez, nondik, nola, zergatik? Oiloaren eritasuna dela bide ugariak eta sentikorrak izan daitezke gure arteko elkarriketak.
- * Kinestesia alorreko diskriminaketa:
 - gorputzaren kontzientzia.
 - jarreraren sentiera.
 - bilateralitatea.
 - oreka.
- * mogimenduaren adierazkortasuna:
 - jarreran,
 - ekintzan,
 - keinuetan,
 - pantomiman,
 - jolasdraman.
- * Erritmo eskema.
- * Tonuera: diatonikoa.



25–

Begira nago

mi m La m Si 7 mi m

Begi - ra begira begi - ra nago begi - ra begira begi - ra ux - tai

mi m Do M Re M mi m La m Si 7 mi m

barrura labiru labiru labiru labiru labiru la. Bi - han - kaz ba - ruu -

La m Si 7 mi m La m Si 7

ra! ji - ra ji - ra ji - ra bi - ra. Bi han - kaz kan - po - ra jira ji - ra bira -

mi m La m Si 7 mi m

tan. Hanka - motxetan ba - ruu - ra! Jira ji - ra ji - ra bi - ra. Mux e -

La m Si 7 mi m

gin e - ta kan - po - ra! jira ji - ra bi - ra - tan.

BEGIRA NAGO

Begira begira begira nago
begira begira begira
uztai barrura labiru labiru
labiru labiru labiru la.

Bi hankaz BARRURA!
Jira jira jira bira.
Bi hankaz KANPORA!
Jira jira biratan

Hankamotxetan BARRURA!
Jira jira jira bira.
Mux egin eta KANPORA!
Jira jira biratan.

Jolasmotrizitatea.

- * BI HANKA DITUGU.
- * Uztaiaren aurrean, begira begira, gaude, une jakin batean saltoak egiteko ernai-ernai,
 - Bi hankaz eta jira
 - hankamotxetan eta jira
 - mux egin eta kanpora.
- * Musikaren dinamika etengabekoa da, denok gara partaide, saltoak egiteko prest gaudenok eta begira begira, kantuaren eraginetan murgilduz txaloka ari garenok,
- * Materialea: uztaiak, sokak, pneumatikoak, edo lurrian kleraz margoturiko zirkuloak.
- * Inguruarekin ditugun harremanen sentiera:
 - lekutasuna.
 - norakotasuna.
- * Entzumenaren hezketa:
 - zolitasuna
 - norabidekotasuna.
 - entzumen/oinen koordinaketa.

- * Erritmo eskema.



- * Tonuera: diatonikoa.

26– Txoko txoko, mendipetik

Txoko txoko mendi - pe - tik Txoko txoko zu - bi gaine - tik.
 Txoko txoko pupupu! Txoko txoko pupupu! A - gur! De - nori tre - ne -
 tik.
 Txoko txoko txoko din dan don! Txoko txoko
 din dan don! E - gon e - zin ezin e - zin e - gon egon
 Agur de - nori e - ta e - gun on!

Txoko txoko mendipetik.
 Txoko txoko zubi gainetik.
 Txoko txoko pupupu!
 Txoko txoko pupupu!
 Agur denori trenetik.

Txoko txoko txoko
 din dan don!
 Txoko txoko
 din dan don!
 Egon ezin ezin
 ezin egon egon
 Agur denori eta
 Egunon!

Jolasmotrizitatea.

– BI HANKA DITUGU.

- Trenaren ibilaldiaren eragina da ariketa honen bidez landu nahi dena: ez bakarrik aurrera, aurrera eginaz gure Martuteneko trenaren mogimenduzko eskema aberasten doa, goitik, behetik, barnetik, kanpotik ibiliz.

Gorputz eskemaren eta beronek dezakeen espazio eta denborazko garapenaren konzientzia indartu nahi dugu. Ibilian, ibilian, erritmikaren deiak bibenziatuz, goia, behea, barnea, kanpoa gorputzez bizitzen ari gara.

– Ahalmenen koordinaketa:

- Ikusmen/eskuen koordinaketa.
- Ikusmen/oinen koordinaketa.

– Gorputzaren nolakotasunak:

- indarra.
- malgutasuna.
- arintasuna.


– Mogimenduaren adierazkortasuna:

- jarreraren.
- ekintzan.
- keinuetan.

– Ingurugiroarekin ditugun harremanen sentiera:


- lekutasuna.
- norakotasuna.

* Erritmo eskema.



* Tonuera: Diatonikoa.

* Perkusiozko moduloak.





27-

Soka gaisetik

La M mi 7
 Zip, tip, tip, hantulsik na-bil tip, tip gela barru-tik tip tip soka gaine.

La M Re M mi M La M
 tik, tip, tip. Zip, tip, tip, hantulsik na-bil - tip, tip, gela ba-rru.

mi 7 La M La M Fine. Re M
 tik tip, tip, soka gaine- tik tip, tip. Zip, tip, tip behatz punta-

La M mi 7 La M Re M
 tik tip, tip. Zip, tip, tip, soka lotu-rik tip, tip. Zip, tip, tip botak u-rru.

La M mi 7 La M Si 7 mi 7
 ti! Zip, tip. Zip, tip, tip aurrera se-gi, aurrera be-ti!

D. C.
 eta
 Fine.

SOKA GAINETIK

Tip, tip, tip, hankutsik nabil
Tip, tip gela barrutik
Tip, tip soka gainetik,
tip, tip.
Tip, tip, tip, hankutsik nabil
Tip, tip, gela barrutik
tip, tip, soka gainetik
Tip, tip.
Tip, tip, tip, behatz puntatik
Tip, tip.
Tip, tip, tip, soka loturik
Tip, tip.
Tip, tip, tip, botak urrutil!
Tip, tip, tip, aurrera segi,
aurrera betil!

Jolasmotrizitatea.

- BI HANKA DITUGU.
- Ibil ibilian, hankutsik, oinazpiak sokaren gogortasunez ardura daitezen.
- Indartu orekan ibiltzeko gaitasuna.
- Oinazpiak ezezik bahatz-punten zentzua zuzpertzeko ahaleginak egin ditzagun.
- Perkusioz edo kantuz erritmoa markatzean oso kontutan izan haurren tempo pertsonala, batez ere kortxeen arabera mugiarazten ditugunean.
- Kinestesia alorrean:
gorputzaren kontzientzia: hankazpia, hankutsik, hanka-puntetan.
lateralitatea.
oreka.
- Entzumenaren hezketa:
entzumen oinen koordinaketa.

* Erritmo eskemak.

- beltzen eraginaren arauera
- Kortxeen eraginaren arauera
- Txurien eraginaren arauera



* Tounera: diatonikoa.

28– Zozo dantza


Hanka puntte-tan Txori mutil sal-ta-ri, hanka puntte-tan zo-
zo he-gala-ri. ri. I-txu-li-ka! Atzetik sal-to-ka! I-
txu-li-ka! Aurretik sal-to-ka! Txin Txin Txibiri txin txirula
txirula kanta-ri. Txin. ri.

Hanka punttetan Txori mutil saltari,
hanka punttetan zozo hegalari.
Hanka punttetan Txori mutil saltari,
hanka punttetan zozo hegalari.
ITZULIKA!
ATZETIK SALTOKA!
ITZULIKA!
AURRETIK SALTOKA!
Txin txin txibiri txin
Txirula Mirula kantari
Txin txin txibiri txin
Txirula Mirula kantari.

Jolasmotrizitatea.


- * BI HANKA DITUGU.
- * Materialea: soka.
- * Mogimenduaren adierazkortasuna: Dantza.
- * Kodea: denak soka inguruan, bi hanken artean soka dutelarik.
Hankapuntetan eta soka inguruan ibiliz.
- * Hitzeko kodea: "Itzulika" entzutean, jira bat atzekaldera.
Bigarren aldian "Itzulika" entzun eta jira aurrekal-
dera.
- * Kinestesia alorreko diskriminaketa:
gorputzaren kontzientzia
jarreraren sentiera.
oreka
- * Ahalmenen koordinaketa:
ikusmen/oinen koordinaketa
entzumen/oinen koordinaketa.
- * gorputz espresioa: aldierazi, ibilian, Txorimutil eta zozoaren ere-
duak.


- * Erritmo eskema.



- * Tonuera: diatonikoa.

- * Perkusiozko moduloak.





29– Lotan nago lotan

mi M La M mi M La M mi M La M

Lo - tan nago lo - tan a - me - tsetan ta lo - tan. Lo - tan nago

mi M La M mi M mi M La M mi M La M

lo - tan har - nashetan ta lo - tan. Besoak es - na daude ta gora bat ta

mi M La M mi M La M mi M

go - ra bi. Hantkak es - na - tu dira ta go - ra bat ta go - ra bi.

La M si 7 mi M mi 7 La M

Leihoak i - re - kita ar - giak be - gi - tikan. Zu - tikan ja - rri eta ha -

Fa # M si 7 mi M La M mi M si 7 mi M

si gara dan - tikan Ea - rrapatatan Ea - rrapatatan ta - rrian Ea - rrapatatan.

LOTAN NAGO LOTAN


Lotan nago lotan
ametsetan ta lotan.
Lotan nago lotan
harnasketan ta lotan.
Besoak esna daude
ta gora bat ta gora bi.
Hankak esnatu dira
ta gora bat ta gora bi.
Leihoak irekita
argiak begitikan.
Zutikan jarri eta
hasi gara dantzaz
TARRAPATATAN TARRAPATATAN
TARRAN TARRAN TARRAPATATAN.

JOLASMOTRIZITATEA.

BI BESO DITUGU
BI BESO DITUGU.

- * Guztizko errelaxamenduan arnaskeraren sentiera zuzpertzuz, lurrean etzanda, luzeran gorputzez ingurua barneratuz. Kantuaren erritmikaren eraginera lasaigirotik progresiboki mogimendura iraganaz.
- * Kinestesia alorrean:
gorputzaren kontzientzia.
jarreraren sentiera.
lateralitatea.
- * ahalmenen koordinaketa:
entzumen/eskuen koordinaketa
entzumen/oinen koordinaketa.
- * Gorputzaren nolakotasunak:
malgutasuna.
arintasuna.

- * Erritmoaren eskema.



- * Tonuera: diatonikoa.

30—

Aparretan

LaM mi7 LaM

Parran-pan parran-pan apa-rretan parran-pan goi-ti behere-tan

mi7 LaM mi7

tan pi-lo-tak a-pa-re-tan. Gu-re pauso-ak eta

LaM ReM LaM

ta be-so-ak be-ti ba-te-ra do-az Parran-pan parran-

mi7 LaM LaM mi7 LaM

pan apa-rretan parran-pan goiti behere-tan pi-lo-tak a-pa-re-tan.

Parranpan parranpan
 aparretan parranpan
 goiti beheretan
 pilotak aparretan.
 Gure pausoak
 eta besoak
 beti batera doaz.
 Parranpan parranpan
 aparretan parranpan
 goiti beheretan
 pilotak aparretan.

Jolasmotrizitatea.

* BI HANKA DITUGU ETA BI ESKU.

* Ibil ibilian erritmoaren eragin geldian.

* Ibilaldiaren eskemak progresiboki gaindituz, oin eta besoen mugimendua bateratzen ahaleginduz.

Haurren gaitasunak heltzen agertzen zaizkigun neurrian hasi gara proposamen berri eta zailagoak eskaintzen. Hori izaten bait da eguneroko zeregina: kontrolatuz, ebaluatuz, egunak berez dakartzan haurrak estimulatzeko, animatzeko aukerak kontutan izatea.

* Materiallea: globoak.

Berritasun guztien ondoren datozen oztopo guztiak gaindituz, eta globoekin edozein modutan jolasteko ohizko grina itzali zaienean, proposatu, hots, proposatu besterik ez, oinak eta besoak batera mogitzea. Erritmoaren hezketari dagokionez ez da zeregin erraza. Oinak, besoak, bi artikulapen horien koordinaketa lortuz gero, ez bakarrik belarrietatik –oin, beso eta globoen mugimendu sinkronizatua ikusiz, begietatik ere barnera dezakegu erritmoaren eskema.

* Ahalmenen koordinaketa:

ikusmen/eskuen koordinaketa.

ikusmen/oinen koordinaketa.

entzumen/eskuen koordinaketa.

entzumen/oinen koordinaketa.

* Erritmoaren eskemak.

txuriak
beltzak
kortxeak



* Tonuera: diatonikoa.



31— Gora, behera, bai



Gora behera behera behera
gora behera behera bai.
Gora behera behera behera,
gora behera behera bai.
Bat, bi, hiru, lau,
sardina bakalau!

Jolasmotrizitatea.

Besoak gora, besoak behera, eskuak txaloka,
besoak kurutzatuz.

Kinestesia alorrean: gorputzaren kontzientzia.
lateralitatea.
oreka.


Ingurugiroaren oharpena: lekutasuna.
norakotasuna.

Gorputzaren nolakotasuna: indarra.
malgutasuna.
arintasuna.

Mogimenduaren adierazkortasuna:
soroan gabiltza, atzera eta aurrera, atxurraz lurra kolpa-
tuz.

Pantomima eta jolasdrama:


dantza: Kodea. Zahagi-dantzaren eskema.
Bi lerrotan: A.- ibilian, aurreraka eta atzeraka.
B.- bi lerroak aurrez aurre.



* Erritmo eskemak



* Tonuera: diatonikoa.



* Perkusiozko moduloa

Bat bi hi-ru lau sar-di-ña ba-kalau!

32-

Firrin firrin frash

Firrin firrin frash fan-dan-go. Firrin firrin frash fan-dan-go.

Fe-liren fes-tan furra eta fa-rre futafufonoaz, fa, fe, fi, fo, fu.

Firrin firrin frash
fandango.
Firrin firrin frash
Fandango.
Feliren festan
furra eta farre
Futafufonoaz,
Fa, fe, fi, fo, fu.

Jolasmotrizitatea.

- * Esku eta hanken arteko disoziaketa.
- * Inguruaren aztertzea:
 - barrua-kanpoa,
 - barruko borobila, kanpoko borobila.
- * Kinestesia:
lateralitatea, ezker-eskuin sentieren lanketa.
- * Gorputz espresioa:
 - dantza: erritmoaren eraginera, fandangoaren mogimendu arruntak lantzen dira.


- * Kodea:
bi borobil egiten ditugu, bata kanpoan eta bestea barruan, bietan pertsona kopuru berdinak egon behar dute.

Barrukoak erritmoa lantzen hasten dira: hau isilka egiten da eskuinaldera bueltaka. Gero, hitza eta erritmoa sartzen ditugu, kanpokoak ere erritmoa lantzen hasten dira: Baina lehenengo-koek estrofa osoarena egiten dute, eta besteek txaloz fandango hitzak adierazten duen erritmoa (2. erritmoa alegia). Hauek geldirik daude.

Azkenik kanta eta erritmoa, orain kanpoan daudenak ere bueltaka hasten dira, beraien erritmoa jarraituz; hauek bueltak ezkeraldera ematen dituzte. "Fandango" esaterakoan bikoteak egin eta dantzan hasten dira berriz zortzi aldiz (lau alde batetara eta beste lau bestera).

- * Fonemafoni alorrean: F fonema lantzen dugu, kantaren hitzek F fonema dute (feliren, festan, furra, farre...)

- * Erritmo eskemak



- * Tonuera: diatonikoa.



33—

Suhiltzaileak

miM LaM miM LaM si7 miM

Su - a, su - a, su - a! Sss! Sss! Sss!

Su - ga - rre - tan ba - so - a, Sss! Sss! Sss! Be -

LaM miM si7 miM LaM si7 miM

hetik go - ra al - bo - tik albo - ra su - garriaren be - so - ak.

Sua, sua, sua!
 Sss! sss! sss!
 Sugarretan basoa,
 Sss! sss! sss!
 Behetik gora
 albotik albora
 sugarraren besoak.
 Behetik gora
 albotik albora
 sugarraren besoak.

Jolasmotrizitatea.

- * Besoak, behatzak, eskuak, oinak, denak partaide suhiltzaileen JOLASDRAMA honetan.
 - * Gorputz espresioa: landu ditzakegun mugimenduak, suarena, txinpartarena, hostoena, adarrena, suhiltzaileen autoa, mangera.
 - * Fonemafoni arloan:
txis-pa, txissss
pir-par,
zirt-zart!
ningi-ningi!
 - * Gorputzaren nolakotasuna:
malgutasuna
arintasuna.
 - * Mogimenduaren adierazkortasuna:
jarreran,
ekintzan,
keinuetan.
 - * Hitzezko komunikakuntza zuzpertzuz:
sugarra, txinparta, hostoa, adarra.
Luzatu, zabaldu, makurtu, hil.
- * Erritmoaren eskema



- * Tounera: diatonikoa.

34— Eguzki politena

Lurrean ja-ri gara a-patx e-gin e-ta, bi eskuz har-tu dugu
 soka luze bat. Bi oinak aurrera, biz-karra atze-ra! E-guzki po-
 litena o-satuz lurre-an.

Lurrean jarri gara
 apatx egin eta,
 bi eskuz hartu dugu
 soka luze bat.
 Bi oinak aurrera,
 bizkarra atzera!
 Eguzki politena
 osatuz lurrean.

Jolasmotrizitatea.

* Laxapenean.

Norberaren gorputzeko soinu-iturrietan oinarrituz (arnasketa, tau-padak, ukimeneko bibrazio-sentipenak, erresonantziak, oihartzunak) barneko entzumen-ahalmena potentziatu.

Airketak:

Laxapeneko egoeran, arnasketa-ariketak agin:

- ahotik arnasa hartuz eta botaz.
- sudurretik arnasa hartuz eta botaz.
- arnasa sudurretik hartuz eta ahotik botaz.
- bular eta sabelaldeko mugimenduak bibentziatuz.

* Kinestesia alorrean:

jarreraren sentiera: apatx eginda.

lateralitatea: bi eskuz soka hartuz.

bi hankak aurrera.

* Mogimenduaren adierazkortasuna.

jarreran, apatx eginda, etzanda.

ekintzan

keinuetan.

* Erritmo eskema.



* Tonuera: diatonikoa.

C	Ahots Hezkuntza
----------	------------------------

Kantuz eta ipuinaz

Orientabideak

Eskolaurreko haurrarekin harremanak indartu nahi honetan IPUINA izango da musika arlora erakarriko gaituena. Ipuinak berak prestatuko dizkigu tonuaz, doinuaz eta erritmoz jantziko ditugun sentierak eta bizierak. KANTUZ ETA IPUINAZ, ipuinaz eta kantuz, fantasia/errealitatearen ortzadarrean ipuinetatik aterako ditugu eskolaurreko haurrak MUSIKA HEZKUNTZAN murgil arazteko behar ditugun eraginak.

Ez da luzea aukeratu ditugun ipuinen zerrenda, baina bai ezaguna. Mundu guzian zabaldua, Literatura Unibertsalean betirakotu zaizkigun kondakizunak:

- Hamelingo xirularia.
- Mari Errauskin.
- Sagutxo kaskarina.
- Berunezko gudaritxo.
- Katu botaduna.
- Pinotxo.
- Zazpi ahuntxumeak.
- Txokolatezko etxea.
- Edurne zuri.
- Bremengo musikalaria.

Haurrak ezagunak ditu, irakasleak ze esanik ez.

KONTU KONTA KANTA KANTARI diogu gure musikaldien sail berezi honi. Ipuinari dariona kantuetan finkatu dugu. Kantatuz eta errepikatuz, haurraren irudimenean ipuinak entzunaz barneratu dituen sentiera eta biziera guztiak errepikak joaz ari dira.

Hontaz,
entzunaz eta kantatuz

* AHOTS HEZKETARI dagozkion helburuak betetzeko bidetik abiatzen gara:

Kanta saioak

- guztizko errelaxamenduan eginaz.
- ahozkapenak eta harnaskerak landuaz.

- fonemak arretaz bereiztuaz.
- esaldien esanahiak konprenieraziaz.
- ahotsaren gaitasunak sendotuz.

* **ERRITMO ESKEMAK** biziki barneratu ditzakegu:

- gorputz osoaren partaidetza eraginaz,
- errelaxamendutik mogimendura iraganaz.
 - ibilian,
 - geldieran
 - dantzatuz
- mezuen arabera pantomimak eta jolasdramak eginaz. Kontutan izanik 2/4, 3/4 eta 6/8 delako erritmo moduloak direla kantagintzan erabiliak izan direnak, eskolaurreko haurraren motrizitateak egoki eta erraz erantzun dezake-tena.

* **ENTZUMEN HEZKETARI** dagokionez

KANTUZ eta IPUINAZ sail honetan ez dugu pentatonia mailako tonuenarik erabili. Beraz, diatonikoak dira gure kanta osatzeko landu ditugun tonuen moduloak. Ipuinen eragintzapean sortu ditugun kantuen bidez hurrek lehen-
dik barneratuak dituzten tonalitate arruntak, ezagunak eta inguru ingurukoak sendotzen eta sakontzen ariko zaizkigu. Kanta batzuk handik eta hemendik bilduak badira ere, gehienak euskal kantuen tonu-moduloetan oinarriturik eta inspiraturik agertuko zaizkigu.

MUSIKA TRESNEN BIDEZKO hezketari buruz, eskolaurreko hurrekin ari den irakasleak izango du FONOGRIÑA arloko sail berezi bat. Aski izango dela iruditzen zaigu ahozkapenak eta ahotsaren gaitasunak musika tresna gisa erabiltzea, *ni neu neronika* adieraziz gorputzaren ozentasunez-ko zenbait gaitasun.

Oharra.

Kanta guztiek bere partituratxoa duten honetan, kodigo erraz eta arrunta erabili dugu gitarraz kantuari laguntza bat eman nahi dionarentzat. Kantu denon tonalitatea bera haurraren tesitura estandarraren arabera finkatu dugu. Beraz, gure ustetan bahintzat, nahiko ados etorriko dira gitarrarentzat moldatu dugun kodigo sinplea eta eskolau-
rreko haurraren ahotsa.



35-

Sehaskan lotan dago haurtxoa

Sehaskan lotan da-go haur-txoa, a-mets go-xo-ak e-gi-
 nar gau o-soan. Sehaskan lotan da-go haur-txoa, Kan-tari dau-
 ka ai-ta be-re on-do-an. Lo-lo mai-te, lo-lo kutu-na, go-
 xo-goxo kan-ta-tu nahi di-zut. Lo-lo mai-te, lo-lo kutu-
 na, a-mets o-re-nak i-zan di-tza-zun.

Sehaskan lotan dago haurtxoa

Sehaskan lotan dago haurtxoa,
amets goxoak eginaz gau osoan,
Sehaskan lotan dago haurtxoa,
kantari dauka aita bere ondoan.

Lolo maite, lolo kuttuna,
goxo-goxo kantatu nahi dizut.
Lolo maite, lolo kuttuna,
amets onenak izan ditzazun.

Ametsaren mugak nork neurtu,
orain artean inork ez du asmatu.
Amets eginaz ikasi nahi dut,
Fantasi-mundua ez dela amaitu.

Lolo maite, lolo kuttuna,
goxo-goxo kantatu nahi dizut.
Lolo maite, lolo kuttuna,
amets onenak izan ditzazun.

Fantasiaren argi dizdirak,
bizi-bizirik zaintzen saia gaitezen.
Bizitzaren ilunpe beltzenak,
bat-batean argitan biztu ditezen.

Lolo maite, lolo kuttuna,
goxo-goxo kantatu nahi dizut.
Lolo maite, lolo kuttuna,
amets onenak izan ditzazun.

36—

Goazen, Goazen, bai. Kantatzera

U - ruitilik ga - biltza mun - du zabale - an Han - diki - ta he - mendik i -
 kasi nahie - an. Fan - tasiaz be - terik dau - kagu mundu - a. I - kusten jakin
 behar. Ho - ri da kontu - a! Goa - zen, goa - zen, bai, kan -
 ta - tze - ra i - ku - si dugun guz - ti - a,
 kanta - ri kantatze - ra .

GOAZEN, GOAZEN, BAI, KANTATZERA

1.– Urrutitik gabilta
mundu zabalean
handik eta hemendik
ikasi nahiean.
Fantasiaz beterik
daukagu mundua
ikusten jakin behar,
hori da kontua!


2.– Egurrezko panpin bat
gezurrak esaten
Pinotxo dela esan du,
ez dugu sinesten.
Zirko baten atzetik
joan zaigu mutila,
aita negarrez dabil
semearen bila.

Goazen, goazen, bai, kantatzera
ikusi dugun guztia, kantari kontatzera.
“Nik kontatuko nizueke baina
lotsatu egiten naiz”

3.– Zazpi antxume txuri
mutur beltzarekin
ama ahuntza pinto bat
bizi zen haiekin.
Otso gaizto bat ere
basora sartu zen
hamaika tranpa zikin
asmatu zituen.

4.– Katuaren kontuak
esango ditugu
abentura ederrak
egingo dizkigu.
Bizkor eta bihurri
agertuko zaigu
Errege Jauna bere
lagun egingo du.

Goazen, goazen, bai, kantatzera
ikusi dugun guztia, kantari kontatzera.
“Nik kontatuko nizueke baina
lotsatu egiten naiz”



37— Hamelingo saguak

La M Re M La M
 Flame - lin - go sa - gu - ak.

Re M La M Re M
 Flauk di - ra, bai, kon - tu - ak. Zumil - ka e - ta xiroxir -

La M mi7 La M Re M
 ka e - ta mila - ka da - toz korri - ka. Zumil - ka e -

La M mi7 La M
 ta xiroxir - ka e - ta mila - ka da - toz korri - ka.

HAMELINGO SAGUAK

- 1.- Hamelingo saguak.
Hauk dira, bai, kontuak.
Trumilka eta xirxirka eta milaka datoz korrika.
Trumilka eta xirxirka eta milaka datoz korrika.
- 2.- Ganbaran ras eta ras.
Logelan xir eta xir.
Nazkaz beterik erratz batekin andre bat dabil atzetik.
Nazkaz beterik erratz batekin andre bat dabil atzetik.
- 3.- Sagu bat kafesnetan.
Beste bat azukretan.
Gozoki denak, gazta den-denak jan dizkigute gaur bertan.
Gozoki denak, gazta den-denak jan dizkigute gaur bertan.
- 4.- Hamelingo jendea,
Hamelingo alkatea,
Galdezka dator, galdezka dabil ez bait dakigu zer egin.
Galdezka dator, galdezka dabil ez bait dakigu zer egin.
- 5.- Xirula bat entzun da,
Hamelingo herrian.
Xirulari bat! ez beza uka, gazte bat dator txistuka.
Xirulari bat! ez beza uka, gazte bat dator txistuka.

HAMELINGO XIRULARIA

Saguak hemen, saguak han, saguak nonnahi. Larria zen benetan Hamelingo herriaren egoera.

Eta han ere xirulari baten musika izan zen konponbide bakarra, eta horrela, xirula joaz, xirula-musikak eginaz, erre kara joan eta han itotzen direla Hamelingo sagu denak.



38— Errauskin, Errauskin!

mi M La M Si 7 mi M La M mi M

Dindindan jau-region gaur gaurdi-an, dantrak utxi e la joa-te-ko

Si 7 mi M La M Si 7 mi M La M

ga-rai-a. Dindindan jau-region gaur gaurdi-an, Oi e-ne-txo!

mi M mi M Si 7

Gauko ha-ma-bi-ak! E-rauskin, Errauskin! Kautsetan zi-kin!

mi M

E-rauskin, E-rauskin! saminak, sa-min. E-rauskin, E-rauskin

La M mi M Si 7 mi M

exkontrake-gin E-rauskin, E-rauskin! Printze bate-kin.

ERRAUSKIN, ERRAUSKIN

1.– Dindindan Jauregian gaur gauerdian,
dantzak utzi eta joateko garaia.
Dindindan Jauregian gaur gauerdian,
Oi enetxo gaueko hamabiak.

Errauskin, Errauskin
hautsetan zikin.
Errauskin, Errauskin
saminak samin.
Errauskin Errauskin
ezkontzak egin
Errauskin, Errauskin
Printze batekin.

2.– Maitemindurik dago Printze gaztea,
gure Printzesa polita ikustean.
Atoz bai niregana, ene maitea,
zu zara argiena izartean.

3.– Marionak badaki zein ona zaren,
ez izan penarik aldegin arren.
Oi Mari xarmangarri, denon zoramen,
Printzea badator zure ondoren.

MARI ERRAUSKIN

Ipuin honetako gaizkileak ez dira anaia zaharrak, bi haizpordeko baizik. Narratsa zela, zikina zela eta han zeukaten Mari Errauskin gaxoa lanean beti, izkutuan beti.

Baina munduko gauza izkutuenak ere argiak izaten ziren Mariona batentzat, eta bi harropuzte bere zigorra jasoko dute eta Mari Errauskin, txintxo zelako, a zer saria bereganatu ahal izan zuen! dantzatzuz eta zapatatxo galduaz, Printzea berarekin ezkondu!

39-

Firi, firi, fi

Firi, firi, firi, fi-ri fi! Gasoko saguntxo kas-ka-rin.

Firi, firi, fi kanta kantari ta dantza dantza-ri. Eriki tri-ki tri

dan-bo-lin. Sa-gu-txo, oi sa-gu-txo

po-li-txo! Sa-gu-txo, po-li-txo bezin kaskarin.

txo. Mai-te-mi-nex e-goten naiz e-gu-nex

Mai-te-mi-nex kan-ta-ri bi-xi naiz gau-er.

D.C. eta Fine.

FIRI, FIRI, FI

Firi, Firi, Firi, Firi fi
basoko sagutxo kaskarin.
Firi, Firi, Fi
kanta kantari
ta dantza dantzari
Triki triki tri danbolin.

Sagutxo, oi sagutxo politxo
Sagutxo, politxo bezin kaskarintxo.
Maiteminez egoten naiz egunez
mainteminez kantari bizi naiz gauez.

Firi, Firi, Firi, Firi, Fi
basoko satutxo kaskarin.
Firi, Firi, Fi
kanta kantari
ta dantza dantzari
Triki triki tri danbolin.

SAGUTXO KASKARINA

Polita izango zen gure ipuineko sagutxo, baina baita kaskarina ere.
Zer? Eta lasai lo egin nahi zuela.

Katuak ez zuen gauetan zurrungarik egingo, baina saguekin bakeak
egin? Bai, egon horretan sagutxo kaskarin!



40—

Tatari tete! Tatari tata!

La M Re M La M

Lagun-txo be-ri bat e-gin dut bostur-te bete ditudane-an
Bo-rra-kak pres-ta-tren di-tu-gu bes-te ho-geita-lau lagune-kin

Re M mi7 La M

guda-ri-txo bat, hanka-ba-ka-rra ausar-ta e-ta-ka-rra.
Amak sor-bal-dan, tiro-ka pim-pum! Hanka-motra lxa-pel-dun!

Re M La M Re M mi7 La M

Tatari te-te! Tatari ta-ta! Xurutak a-ri di-ra tu-tu! Xurutak te-

Re M La M Si7 mi7

te! Xurutak ta-ta! Borrokak i-ra-ba-xi di-tu! D.C.

TATARI TETE TATARI TATA

- 1.- Laguntxo berri bat egin dut
bost urte bete ditudanean
gudaritxo bat, hankabakarra
ausarta eta azkarra.
Borrokak prestatzen ditugu
beste hogeitalau lagunekin
armak sorbaldan, tiroka pimpum!
hankamotza txapeldun!

Tatari tete
Tatari tata
Turutak ari dira tutul
Tatari tete
Tarari tata
Borrokak irabazi ditu!

- 2.- Iñularretik gauerdira
sekulako festak hasi dira.
Gudan gudari, dantzan dantzari
ez da festa hoberik.
Galtzagorriren pikardiak
benetan bai direla haundiak
festak egin nahi, dantzan hasi nahi,
beste denak amolai!

- 3.- Geldirik geldi hankomotza
maitemindurik dauka bihotza,
negarrak negar, saminak samin
dantzarik egin ezin.
Zoritxarra zer den badaki
etxetik joan zitzaigun hartatik;
pozirik gaude denok etxean
gaur elkar ikustean.

BERUNEZKO GUDARITXOA

Hanka bakarra izango zen gure ipuineko gudaritxoa. Zoritxarrez
beteriko abenturak biziko zituen, baina haren bihotzak tximiniako suak
baino indar gehiago izan zuen eta dantzariak berak ere, nahiz eta isilik bizi,
ondo asmatu zuen nori eskaini bere oinetako zapata txuriak.

41-

Miau, morron, miau! Katu botaduna

miau! mo - rron miau! Katu bo - ta - du - na! miau! mo -
 rron miau txi-kien la - gu - na. miau! mo - rron miau! Katu bo -
 ta - du - na Gax - te - lukoe-rvaldoi ja - tu - na, go - se - rik gose utxi du -
 zu - na, oi, ka - tu bota - du - na. miau! miau! mo - rron morron
 miauka pozi - rik jarri du - zu mar - te - sa, pozi - rik utxi du - zu prin -
 tze - sa, bi gar - teen a - me - tsa! Bi gar - teen a - me - tsa!

MIAU, MORRON, MIAU KATU BOTADUNA

Miau! Morron miau katu botaduna
Miau! Morron miau txikien laguna
Miau! Morron miau katu botaduna
Gazteluko erraldoi jatuna
goserik gose utzi duzuna
Oi, katu botaduna.

MIAU!

Miau! Morron morron miauka
pozirik jarri duzu markesa
pozirik utzi duzu printzesa
bi gazteen ametsa
bi gazteen ametsa

Miau, Morron miau katu botaduna
Miau! Morron miau txikien laguna
Miau! Morron miau katu botaduna
Gazteluko erraldoi jatuna
goserik gose utzi duzuna
Oi! katu botaduna.

MIAU!

KATU BOTADUNA

Anai-arreba zaharrek ez dituzte beti txikien eskubideak errespetatzen, eta horretarako zegoen Katu Botaduna; Jontxu gaztetxoari laguntzeko. Tranpatxo batzuk egin behar zirela? Ba, horixe, egin eta aurrera; errotariaren seme txikiena erregearen alabarekin ezkondu arte.



42– Pino, pino, Pinotxo!

Behin ba-te an panpi-na bat e-za-gu-tu ge-nu-en haren e-gu-rrezko su-
 du-rrak beldu-rra sortzen zu-en. en. Ge-zu-rrak e-sa-naz sudurra
 be-ti lu-za-tzen. Ge-zu-rrak as-ma-tzen hala-ko mu-tirik ez zen. Es-
 ko-lara-ko bi-deak gal-du-ta zi-tu-en. Lu-rral-de haie-tan bihurri-
 e-na be-ra zen. Behin ba-te an panpi-na bat e-za-gu-tu ge-nu-en haren e-
 gu-rrezko su-du-rrak beldu-rra sortzen zu-en. Parra pa-trun pa-
 trun pa-trun. Pino Pino Pi-no-txo!

PINO, PINO, PINOTXO

Parra patzun patzun patzun Pino Pino Pinotxo
Parra patzun patzun patzun Pino Pino Pinotxo
Parra patzun patzun patzun Pino Pino Pinotxo

Behin batean panpina bat ezagutu genuen
haren egurrezko sudurrak beldurra sortzen zuen.

- 1.– Gezurrak esanaz sudurra beti luzatzen.
Gezurrak asmatzen halako mutilik ez zen.
Eskolarako bideak galduta zituen.
Lurralde haietan bihurriena bera zen.

Behin batean panpina bat ezagutu genuen
haren egurrezko sudurrak beldurra sortzen zuen.

- 2.– Txabola batean agure zahar bat bizi zen
egurrezko panpinak han egiten zituen.
Bizitza guztian ideia bat izan zuen:
semetxo bat izan mundutik joan baino lehen.

Behin batean panpina bat ezagutu genuen
haren egurrezko sudurrak beldurra sortzen zuen.

Parra patzun patzun patzun Pino Pino Pinotxo
Parra patzun patzun patzun Pino Pino Pinotxo
Parra patzun patzun patzun Pino Pino Pinotxo

PINOTXO

Oso ezaguna zaigu Pinotxoren ipuina, era askotan kontatu zaigu, baina beti haren sudurraren luzatzea izaten dugu gogoan. Gezur haundiak esaten zituen, eta zer? Noiz eta gezur haundiagoa esan orduantxe eta sudur luzeagoa. Gepetok asko maite zuen, bai eta kilker beltzak ere, eta zer esanik ez goienetako Marionak. Baina denok dugu gure aukerako lagunak egiteko eskubidea, eta Pinotxok hori egin zuen; bere gustoko lagunak aukeratu eta gero geroakoak.

43— Be, be! Antxumeek be, be!

Re M Sol M La M mi m La M

Be! Be! An-txumeak Be! Be! Ba-so-ko txabola-zazpi bi-

La 7 1. Re M 2. Re M

zi di-re. re. Otso-a da-tor! Je-sus, a-di-o!

La m La 7 Re M

Go-se-rik da-go-e-la an-tre-maten za-io.

Be! Be! antxumeak Be! Be!
 Basoko txabolan zazpi bizi dire.
 Be! Be! antxumeak Be! Be!
 Basoko txabolan zazpi bizi dire.

Otsoa dator! Jesus, adio!
 Goserik dagoela antzematen zaio.
 Otsoa dator! Jesus, adio!
 Goserik dagoela antzematen zaio.

Be! Be! antxumeak Be Be!
 Basoko txabolan zazpi bizi dire.
 Be! Be! antxumeak Be! Be!
 Basoko txabolan zazpi bizi dire.

Otsoa dator! Jesus, adio!
 Txabolan egon geldi! amak hala dio.
 Otsoa dator! Jesus, adio!
 Txabolan egon geldi! amak hala dio.

ZAZPI ANTUXUMEAK

Otsoa beti otso, eta maltzurra beti maltzur. Argi ibili beharra dago mundu honetan aitaren etxea defendatu nahi badugu behintzat, bestela, sukalderaino sartuko zaizkigu basoko otso maltzur denak, eta, gureak egin duela!



44-

Hansel,

Gretel!

Re M Sol M Re M Sol M Re M Sol M

Hansel, Gretel tu-roi ta txoko-late. Hansel, Gretel non gorde zara-

Re M Sol M Re M Sol M Re M Sol M

te? Hansel, Gretel tu-roi ta txoko-late. Hansel, Gretel non

Re M Fine Sol M Re M

gorde zara-te? I-ñular ba-tean ba-sotik zebil-tzen aitari la-

Sol M Re M Sol M Re M Sol M

gunduz e-gur txotxak bil-tzen. Katagorri bixi bat han-dik agertu

Re M mi m La7 Re M mi7 La7

zen, segika i-biliar las-ter galdu xi-ren. D.C. eta Fine

HANSEL, GRETTEL

Hansell! Gretell!
turroi ta txokolate.
Hansell! Gretell!
non gorde zarete!

- 1.- Iñular batean basotik zebiltzen
aitari lagunduz egur txotxak biltzen,
Katagorri bizi bat handik agertu zen,
segika ibiliaz laster galdu ziren.
- 2.- Galdurik zeukaten etxeko bidea,
hura zen gosea, hura zen nekea.
Larritzen hasten dira gaua iristean.
Etxe goxo bat dute begien aurrean.
- 3.- Atso zahar maltzurra! Hori duk sudurra!
kaiolan gorde du mutiko xamurra.
Arraultzak, solomoak, gaztainak, intxaurrak.
Ondo gizendu arte Hanselen hezurrak.
- 4.- Neskatil maitea, zer duzu labea?
Ur bero beroa, lapiko barnean.
Kaiolan zaude preso, apurtu kateak!
Atsoa nahi dut ito bultzada batean.

TXOKOLATEZKO ETXEA

Basora joaten garenean, kontuz bidetik urrutiratu gabe, bestela gogoan izan bi anaiei gertatutakoa: katagorri baten arrasto ondoren ibili ziren hartan txokolatezko etxe bat aurkitu zuten basoan, baina ez zen hain gozoa zorioneko etxearen jabea. Atso zahar maltzurra, zer eta Hanselen haragi xamurra probatu nahi zuela. Eskerrak bizkor ibili zen Gretel arreba, bestela... Aaaa! eta behingoz bukatu ziren basoko sorginkeria guztiak.

45– Zurinetxo, Edurnetxo!

Behin bate-an u-ruti-an Jau-regi e-der ba-te-an

printzesa bat han bizi zen E-durre Zu-ri gar-te-a.

Be-gi po-lit, i-xar e-der, ar-gi-e-na mi-la bi-der,

txo-ra txo-ra-tu-rik nauka-xu. Paa! bat e-mango, me-se-dez?

ZURINETXO, EDURNETXO


- 1.– Behin batean urrutian
Jauregi eder batean
printzesa bat han bizi zen
Edurne Zuri gaztea.
Begi polit, izar eder,
argiena mila bider,
txora txoraturik naukazu
Paa! bat emango, mesedez?
- 2.– Ama gaizto, mari sorgin
galdera txarrik ez egin.
Ederrena ote zaren
goizetik nahi duzu jakin.
Ispilutxo sorginduak
jaso dizu agindua.
Politena eta ederrena
beste bat duzu munduan.
- 3.– Zurinetxo, Edurnetxo,
maite zaituzte askotxok
Lau ziripot, Zazpi ipotx
bizar txuri eta hankamotx.
Printze gazte, zertan zaude?
atoz, atoz, oi zalduntxo!
Maiteminez daude basoan,
egon lasai, ene bihotz!

EDURNE ZURI

Atseginak izan zaizkigu beti Edurnetxoren kontuak, nola ez ba, tartean basoko zazpi ipotxak agertzen bait zaizkigu, bihotz oneko ehiztaria eta bihotz minberako printze gaztea. Baina dena enredatzeko hor datorkigula erregina, ederra bezain gaiztoa. Zer eta:

– Ispilu miragarri, nor da nire erreinuan ni baino ederrago?

